

uk

108. zenbakia / 2006 azaroak 6



NAZIOARTEKO TRIKITIXA Jaialdia

GETXOKO **GETXO ANTZOKIAN**,
2006ko **AZAROA**ren 10ean
OSTIRALA, **20.00**etan

PORTUGAL
CHÃOZINHA AHIZPAK

ERRUMANIA
**JULIAN COBZARU eta
ION COBZARU**

ALEMANIA - EUSKAL HERRIA
**CATHRIN ALISCH eta
ALAITZ TELLETXEA**


EUSKAL HERRIA
**ENERITZ GORRITXATEGI eta
EDURTZETA ANIA**



Antolatzailea:



Babesleak:



Auzoko salmenta: 5€
Txarteldegian: 6€
sartzen salmenta
venta de entradas
944 310 310
www.bbik.es
bbk

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA.
7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako Avanzada, 1986-2006.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Fidela Sorazu Gernikabeitia. A. M.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
23. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Itsasoruntz ekimena, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Lasterketa Portu Zaharrean, Getxoko Udal Liburutegia.
30. BERBETAN. Willy Uribe, Oiane Moran.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Martin.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Betizu eta Xangaduko misterioa*. Oskar Fernandez zutabea.
43. MUSIKA. Zodiacs taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Xabier Payaren azken itzulpena.
45. KIROLA. Koldo Zubimendi mendigoizalea.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Sean Aucutt. Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.


AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Elaya enotekara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandioko Atxazpe mendiko taldea, 1956. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Mireia Gabilondo.

Azaleko argazkia: Itsasoruntz ekimena, surfariak Portu Zaharrean



30 Willy Uribe



45 Koldo Zubimendi

Berbetan

Idazlea, bidaiari amorruta, argazkilaririk bikaina... Gizon polifazetiko da Willy Uribe. Beragaz egon gara.



46 Sean Aucutt



34 Mikel Martinen argazkiak



49 Elaya enoteka



54 Mireia Gabilondo

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

- Algortako San Nikolas plaza.....**azaroak 13**
- Areetako anbulatorioa.....**azaroak 14**
- Algortako anbulatorioa.....**azaroak 20**
- Redentor elizako parkinean.....**azaroak 21**
- Erromoko kultur etxea.....**azaroak 23**

Informazioa: 900 303 404 Zatoz odola ematera, ez itxaron!



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte

HELBI BIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentak

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bitor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamuruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da.

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



gugeu

Bidaiak

Leku urrunetara, lehorrez, itsasoz nahiz airez egiten den desplazamendua da bidaiak. Hiztegi Entziklopekiaren arabera. Bada, esku artean darabilzun UK honetan zeregin horietan ibilitako lagun batzuen berri topatuko duzue. Bidaiak luze eta latza egin du **Koldo Zubimendi** erandioztarrak Cho Oyuko gailurra zapaltzeraino heldu arte. Ez gara mendi kontuetan adituak, baina seguru asko zortzimilako bat igo duen eskualde honetako lehenengoa izango da. Bestetik, **Willy Uribe** idazle (bere azken nobela, *Nanga*, liburudendatan salgai dago dagoeneko) eta argazkilariek munduko makina bat bazter ibili ditu olaturik perfektuenaren bila. **Sean Aucutt** Boisen (Idaho) bizi den *euskal amerikanoak* ere bidaiak luzea egin du gurera etortzeko, Sopelan dantza erakustaldia egin zuen Oinkari bere Idahoko dantza taldekoekin batera.

Espazioan ez eze, denboran ere bidaiak daitezke. Guri, badakizue, era horretako osteratxoak egitea izugarri gustatzen zaigu, *Flash-back* eta *Lehen-orain* atalak horren adibide dira. Zenbaki honetako erdiko orrialdeetan ere, XX. mendearen hasieran Portu Zaharreko jaietan ateratako irudi bitxia aurkituko duzue.

Baina UK honetan kontatzen dugun bidaiarik luzeena eta aberatsena, zalantza barik, **Fidela Sorazuk** egin du; izan ere, ehun urte bete berri ditu Fidelak. XX. mende osoa bizi izan du berak. Denboran epe mugatua daukan bidaiak den bitzita ederra dela ikasi dugu berarekin. ⁴

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua




Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

Udal langileak

Joan den astean Getxoko Udalak Erromo eta Areetako auzoetako bizilagunengandik hurbilago egongo diren hainbat bulego berri zabaldu zituen, Gizarte Zerbitzuetako bulegoak, zehazkiago esanda. Egunkaria eskuartean neukan eta albistea argazki batekin lagunduta zetorren. Argazkiaren oinean honako testu hau: *“Zarraoa, rodeado por un grupo de trabajadores municipales”*. Hau da hau! pentsatu nuen nire artean. Argazkia deskribatuko dizuet lau hitzetan nire harridura uler dezazuen. Erdian, Alkatea, bere ondoan gizon bat, eta bost emakume, hiru Alkatearen eskumatara eta bi bere ezkerretara. *“Tira! Gizon bi eta bost emakume agertzen diren argazkia azaltzeko maskulinoa erabiltzea ez da hain larria, ohitura kontua besterik ez da”* pentsatuko du batekin baino gehiagok. Baliteke. Baina kontua da Alkatearen alboan zegoen gizona Iñaki Urkiza zela, hau da, zinegotzia. Beraz, argazkiko langile bakarrak emakumeak ziren. Hala ere *“trabajadores municipales”*. ⁴

[irudia]



LAMAKO, 2008KO URRAREN 27A

Formakaz olgetan / Naturak, askotan, irudi bitxiak oparitzen dizkiete gure begiei. Goiko argazkia adibide sano ona da; izan ere, momentu eta une egokian kamera eskuan izateak gurata lortuko ez genituzkeen sekuentziak harrapatzea ahalbidetzen du. Ibaizabal, uretara hondakinak isurtzen dituen hodia, bertatik elikatzen den lasun-sarda... Ez al du ematen, ordea, kea botarzen duen sumendi edo tximinia baten aurrean gaudela? Akaso, azkena hobea, sikeran argazkia aterata dagoen tokia lantegiz beteta dagoela kontuan hartzen badugu. Gure bizimoduaren metaforak eginez kezkatzen al da Amalurra? ^m / Argazkia: **Asier Mentak**



ARGIA egutegia 2007 salgai dagoeneko

Azalean

- eguzkia eta ilargiari dagozkionak
- santutegia
- gizon-emakumezkoen euskal izenak
- itsasgora eta itsasbeheren inguruko informazioa

Atzealdean

- egunarekin lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak



Egutegia: 7,50 € - Taula: 50 € + egutegia opari

eskaerak

© 943 371 545 - denda@argia.com - www.argia.com/denda

ARGIA

www.argia.com



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / LEIOAKO AVANZADA (1986-2006)

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > “presoak etxera” & “bai, nahi dut”



Algortako Portu Zaharra, 2006ko urriaren 21a

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Momentu oso surrealistikak dakartza bertsoaritzak, besteak beste, Itsasoruntz-ko ekimena hartuz aintzat, hara ze koadro eskaini zigun larunbat hartan bizitzak! Zein ezaugarrik elkartzen ditu bertsoak eta ezkontzak? Egun horretan biek ez zuten apaizen faltarik, behintzat.

Ezkontideek pozez elkarri ematen diote hitza “onean edo txarrean beti batera egin bizitza, batak bestea zaindu dezala bere burua bailitza...”. Elkarrengandik ez urruntzea bada lehenengo baldintza, zenbat presori apurrarazi diote emandako hitza?

Haizea bazen, baina, ez pentsa, ez zen itsaso bizia, hainbat surflarik osatu zuten hondartzaruntzko gezia azaldu nahian zein den bidea, salatu nahian auzia... Gogoan hartuz bizar zuriko Xabierren iritzia, ea lehenbailehen ezkontzen diren bakea ta justizia!

* Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan

ardao dastaketa > UK aldizkariaren eskutik



Getxoko Euskara Zerbitzuak antolatu dituen Euskal Kulturaren VII jardunaldien barruan, ardaoari buruzko hitzaldi-dastaketa prestatu du aldizkari honek. Horretarako puntako somelier bi ekarriko ditugu Algortara: Mikel Garaizabal eta Itsaso Arana. Eurak hara bilduko direnen aurrean mahai gainean ipiniko dizkiegun lau ardaoren gainean gogoeta egingo dute. Aldi berean, jakina, denok ere ardao horiek edango ditugu. Ordubeteko berbaldiaren ondoren pintxo batzuk ere eskainiko dira. Hilaren 22an, eguaztena, 20:00etan Algortako Uribitarte txokoan egingo da berbaldia eta bost euro kostako da. Izena emateko uk@aldizkaria.biz helbidera idatzi edo 658 715 874 telefonora deitu behar da. Lekua mugatua da, beraz, erne ibili! m

europa > Fco. Javier de Landaburu saria eskuratu dute Aixerrrotan



Aixerrotako ikasleak Europako Parlamentuan

Aixerrotako ikasle talde batek Europako erakundeak bisitatzeko aukera izan zuen joan den irailean, iazko ikasturtean Francisco Javier de Landaburu lehiaketan garaile suertatu ziren-eta. Eleaniztasun Programan parte hartzen du Aixerrota institutuak; beraz, D ereduko ikasleek irakasgai batzuk ingelesez egiten dituzte, tartean, prentsa tailer digitala. Ikasgai horretako ikasleek arestian aipatutako lehiaketara aurkeztea erabaki zuten, *Euroa moneta bat baino gehiago* lanagaz. Web orri bat hiru hizkuntzatan (ingeleza, euskara eta gaztelania) sortu eta sari nagusia eskuratu zuten 3. DBHko gazteek: Europako erakundeak bisitatzeko bidaia. Paris, Brusela, Estrasburgo eta Luxenburgora joan ziren 24 ikasle eta 2 irakasle. Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen egoitza ere bisitatu eta afaria egin zuten Eneko Landaburu komisarioagaz. m

euskal dantza > Holandan egon da Getxoko Itxas Argia taldea



Itxas Argiako dantzariak Holandan

Abuztuaren 22tik 28ra bitartean, Enschede herrian (Holanda) emanaldiak eskaini zituen Getxoko Itxas Argia dantza taldeak. Parte hartu zuten 32 bat neska-mutulek, euskal dantza ezberdinak erakustez gain, bertako kultura ezagutzeko aukera izan zuten bidaia iraun zuen bost egunetan zehar. Gauza askoren artean, eskalapoia egiten dituen lantegi bat bisitatu, zaldi gurdian ibili eta Holandako jolas tradizionalak (sokatira, ferra jaurtiketa...) zein dantzak ikasi zituzten gazteek. Horrez gain, Amsterdamera txangoa egiteko aukera eduki zuten. Hiriko Rijksmuseuma ikusi eta kanaletan zein kale ezagunetan zehar osteratxo egin zuten. Taldekideek jakinarazi dutenez, sano gustura ibili ziren hango kultura eta gastronomiaren sekretu guztiak ezagutzen eta esperientzia errepikatzeko prest daudela nabarmendu dute. m

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiek...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

lemoiz > Bizkaiko IV. Sukalki Lehiaketa



Argazkian, epaimahaikideak eta sukaldari sarituak

Joan den urriaren 14an Bizkaiko IV. Sukalki Lehiaketa antolatu zuen Urrustiniena Kultur Elkartek Armintzako portuaren inguruan. Guztira, 100 izan ziren txapelketan parte hartu zuten koadrilak. Jose Antonio Beastegietak, *Marko*, izan zuen ekitaldia aurkezteko ardura eta epaile lanetan ibili ziren, besteak beste, Ensanche jatetxeko Kepa Landa, Gaminiz jatetxeko Aitor Elizegi, Villa de Bilbao hoteleko Txomin Gomez, Yandiolak Ricardo Perez eta Gorozika sagardotegiko Agustin Landa. Txapelketa egunerako, aparkalekuak eta iturriak egokitzeaz gain, antolatzaileek botila bat ardao eta ogia eskaini zizkieten parte hartu zuen talde bakoitzari, suskalkia amaitu ondoren hamaiketako har zezaten. Irabazleak, berriz, garaikurra eta 600 euroko ordain saria jaso zuen, baita gaztaia, kaba, txakolin eta ardao kutxa bana ere. m

bisita > Geroa Ikastolako ikasleak UK-n



Geroa Ikastolako 6. mailako ikasleak

Beste behin ere, ikasle talde baten bisita eduki dugu UK aldizkariako erredakzioan. Geroa Ikastolako seigarren mailako gaztetxoek txanda izan da oraingoan eta, esan beharra dago, adi-adi entzun zituztela kazetariok emandako azalpenak (askok aitortu zuten, aldizkaria irakurtzen dute hamabostero). Oso ondo prestatuta ekarri zituzten egin beharreko galderak eta aldizkari bat bertatik-bertara zelan egiten den ikusteko aukera eduki zuten: maketazioa, informazioa zein iturritatik lortzen den, argazkien tratamendua, aldizkariaren diru iturriak zeintzuk diren, publizitatearen kudeaketa, banaketa eta inprimaketa, besteak beste. Eskolan egin behar duten aldizkaritxoak aurrera eramateko orduan, lortutako informazioa baliagarria izango zaiela espero dugu UK-ko lantaldekook. m

[erretratu]



Fidela Sorazu Gerrikabeitia > mende bat gure artean

Ehun urte bete berri ditu Fidelak azaroaren 2an. Fidela ezagutzeko aukera eduki dugun zorionekook ezin dugu saihestu halako inbidia sanoa sentitzea. Izan ere, emakume ikaragarri alai izan da beti, *korrea* itzeladuna eta bera inguratzen dutenak izugarri maite dutela bistan da. Jaio, Olabeagan jaiotzen eta hantxe eman zituen bere lehenengo urteak; gero, Bilbora aldatu ziren. Han artean 20 bat urte edukiko zituenean *Sales y salces* izeneko saria irabazi zuen. Irakurri, lau erregelak (batu, kendu, biderkatu eta zatitu), arropa lisatu eta patata tortilla bat egitea ziren probak. Garai hartako 1.500 pta. eskuratu zituen, dirutza orduan. Behargin nekagabea, arropa lizatzeko lantegi txiki bat zabaldu zuen. Ostean, 26 urte zituela Mario Barturenekin ("*señorito bat*" dio berak txantxetan) ezkondu zen Getxora. 36ko gerrak Murgian seme-alabekin oporretan zegoela harrapatu zuen. Nazionalak hantxe sartu eta Gipuzkoa aldera bidali zuten. Familia hemen zeukan eta ezkutuan itzuli ahal izan zen arte zortzi hilabete pasa ziren. Bere aitagarriarekin Bilbon bota zuten lehenengo bonbetako batek hil zuen. Neba guztiak Otxandio batailoiarekin borrokatu ziren Artxandan, "*zorionez bizirik ateratzen direnak*". Bestalde, Euskaldunan egin zen lehenengo ontziaren itsasoratzea, "*Artagamendi*", akorduan dauka, ikusi zuen eta. Zinemazale porrokatua, dantzari bikaina "*erromeria guztiatara joaten nintzen*"... Badaki bizitza ederto bizitzen. Zorionak, Fidela, eta urte askotarako! m

Argazkia: **Asier Mentak** / Testua: **Jokin Aspuru**



AIxERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztaian

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



Zilarrezko ezteiak

Lauxeta euskaltegiak **Korrika 15egaz batera** egingo du **25. urteurrena** ospatzeko **ekitaldi nagusia**, hala ere ikasturtean zehar **beste ekimen batzuk** ere antolatuko dituzte

Urte ilunetan Gaueskolak izan ziren argia, euskaltzaleen eta euskara ikasle zein irakasle boluntarioen lehenengo topalekuak. Getxon AEKko eskolek hainbat egoitza izan dituzte urteetan, 1981-82 ikasturtean Iparbide kaleko gaur egungo aterpea erosi eta egokitu zuten arte. Orduetik 25 dira igaro diren urteak; aurtengoa ospakizunerako garaia da.

Bigarren Korrika ospatzen zen ikasturtea zen hura, euskarak Algortan Lauaxeta euskaltegia erditu berri zueneko. Zenbat buruhauste eta burukomin, baldintzapeko azalpen, aginterako mandatu, azterketarako prestaketa, sinonimo eta antonimoz betetako orduak, berridatzitako egunak... Zenbat izan ete dira 25 urteotan? Ziur gehiago izan direla euskararen jabe egin direnak, barre-algarak, gozatutako momentuak, antolatutako hamaika ekitaldiak eta jaiak, lagun onakaz konturatu barik galapan igondako aldapak... Hala ere, Lauxetako irakasle izandako eta Uribe Kostako AEKko arduradun Iratxe Martak jakinarazi duenez, *“aldaketa handiak eman dira; alde batetik egitekoa profesionalizatu egin da, soldatak etab.; gaur egun erabiltzen eta sortzen den materiala hobetu da izugarri hasierakoarekin alderatuz gero, kontu horretan aurrentzapasu handia egin dugu dudarik gabe... eta beste-rik ikasleak ere ezberdinak dira, lehen bazegoen beste giro bat, euskaltzaleagoa, ekitaldiak antolatu eta horietan parte hartzeko gogoak handiagoak ziren, onain hori guztia galdu egin dela dirudi”*.

Korrika 2 jaiotzaren gonbidatu nagusia



Algortako Lauaxeta euskaltegiko irakasle taldea

izan bazen, 15. Korrika zilarrezko ezteien lekuko zuzena izango da.

Gogoan dauka Martak zergatik aukeratu zuten Lauaxeta euskaltegiaren deitura izateko, eta garai hartan AEKk martxan ipinitako estra-

«Urteotako ibilbidean egitekoa profesionalizatu egin da»

tegia edo politikagaz dauka lotura: *“orduan euskal idazleak, eta euskaltzaleak ezagutaraztea, omenalditxoak egitea eta zen asmoa eta euskal idazle ezagunen izena hartu zuten tarte hartan jaio ziren euskaltegiek, adibidez Lizardi edota Gabriel Aresti euskaltegiek, eta guretzat Lauaxeta aukeratu genuen”*. 100 urte bete ziren iaz Estepan Urkiaga Lauxeta jaio zela, eta 25 urte bete ditu aurtun fusuatutako poetaren izena daroan euskaltegiak; laukizarraren urteurrena

ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ziren eta haren hizkuntza berreskuratzea eta haren herria berreskalduntzea helburu duen erakundeak ere ekimenak prestatzen dihardu 25. urteurrena ospatzeko. Ekitaldi nagusia Korrika Algortatik pasako denerako antolatuko badute ere, beste ikuskizun batzuk ere egingo dituzte. Horrenbestez, zuhur eta erne ibili beharko dugu ospakizunetan parte hartzeko eta zorianik beroena emateko. m

Datu batzuk

- **Non:** Iparbide 6, Algorta.
- **Protagonistak:** 10-14 irakasle eta 250-300 ikasle.
- **Eskolen ordutegia:** 9:00-11:00; 16:00-18:00; 18:00-20:00 eta 20:00-22:00
- **Informazio gehiago:** www.aek.net
- **Harremanetarako:** 94 430 47 34 edo lauxeta@aeknet.net

Gazte Informazio bulegoan informazio eskaeren kopuruak gora egin du eta eskainitako ikastaroen partaidetza ere hazi da



Gazte Informazio Bulegoa Algortako Tangora etxean dago

Getxoko Gazte Informazio Bulegoa (GIB) ibilian-ibilian bidea eginez doa. Aurreko urteko datuak alderatuz, eta aurtengo ibilbidea oraindik amaitu barik dagoela kontuan hartuta, dagoeneko emaitzek hobera egin dute. GIBn egindako informazio eskaerak %63 hazi dira, 12.800 kontsulta inguru jaso dituzte aurtun. Horrez gainera, GIBtik antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartu duen lagunen kopuruak ere gora egin du (%31), hala urteko lehenengo seihilekora 76 lagunek hartu dute parte (iaz 58 izan ziren). Horren albotik, aipatzekoa da irailean hasi eta abendura arte GIBk 7 bat ikastaro eskainiko dituela.

Bestalde, erabiltzaileek egindako informazio eskaeren gai nagusiak kultur ekitaldi, lantegi eta

lehiaketen gainekoak izan dira, eta horien ostean bidaiatzea izan da zerbitzurik erabiliena. Eskaerak egiteko modua edo bidea ere aldatu egin dela adierazi dute arduradunek, aurtun erabiltzaileek egindako kontsulta gehienak mezu elektronikoen eta sakelako mezuen bidez egin dira. Teknologia berriak erabiliz, GIBk gura duenari asteburuko agenda, bekak edota diru-laguntzei buruzko informazioa bidaltzeko zerbitzua ere badauka.

Erabiltzaileen izaerari dagokionez esan, emakumeak direla nagusi (%74 aurtun, %60 iaz), Adin tartearan gainean, 22-26 urte bitartekoak dira gehienak (%30), eta horien ondoren 27-30 urte bitartekoak. m

Harremanetarako: 94 491 01 14

GETXOKO EKIMEN BI GARAILE “LUR BARRIAK” SARIETAN

Paulina Sierra eta Pablo Baroja getxoztarren “Hobby Art” ekimenak “Lur Barriak” sarien laugarren edizioa irabazi du. Lehiaketa Behargintza, Bizkaiko Foru aldundiaren Lan eta Trebakuntza saila, EUDEL eta BBK Gazte Lanbidean Fundazioaren laguntzarekin antolatzen da eta enpresaren inguruko kultura hedatzea du helburu. “Hobby Art” arte tailerrak, pintura, marrazketa, keramika, argazkingintza digitala eta diseinu grafikoa lantzen ditu besteen artean. Getxoko eskualdeko atalean, Ana Iribarnegaraiak (“Ana Iri”) irabazi du, fantasiako bitxiak diseinatzeko eta egiteko proiektuarekin. 6.000 eta 2.500 euroko sariak jaso dituzte hurrenez hurren.

EUSKAL DANTZAK IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Getxoko Udalak 25.000 euro zuzenduko ditu gazteek euskal dantzak ikas dituzten. 15.000 ikasle parte hartu ahal izango dute 12 ikastetxe ezberdinetan banatuta. Eskolaz kanpoko orduetan emango dira ikastaroak urrian hasi eta ekainera arte, ordua 12,5 eurotako kostua izango duen arte. Getxoko Itxas Argia eta Portugaleteko Elai Alai elkarteak arduratuko dira ikastaroen antolaketaz.

2007RAKO AURREKONTUAK

Getxoko Udalak, 2007rako aurrekontu egitasmoa aurkeztu du eta hau 104.074.051 eurokoa izango da (2006koa baino %12,5 gehiago). Gehien haziko diren arloen artean Kultura (%34,5) eta Hirigintza (%14,2) egongo dira, Getxo Antzoki berriaren obrak eta zaborteziaren itxi beharra direla eta. Iñaki Zarragoa alkatearen ustez, “zorretan sartu eta udal ondarea saldu gabe” egingo ditu Getxoko Udalak datorren urteko inbertsioak.



Oharra irakurleei

Telefono konpainia aldaketa dela-eta arazoak izaten ari gara gure betiko telefonoarekin (94 491 13 37). Gurekin haremanetan jarri nahi izanez gero, 658 715 874 telefonora deitu edo uk@aldizkaria.biz helbidera idatzi. Barkatu eragozpenak.

Kliska

inforria argitaratzen hasi dira EGIZU eta Bizarra Lepoan

Egizu Getxo Euskaldun! eta Bizarra Lepoan euskara elkarte "Kliska" informazio orria argitaratzen hasi dira urrian. Hilero interneten bidez zein posta arruntz jasotzeko aukera egongo da eta info.kliska@gmail.com helbidera posta elektronikoa idatziz harpidetza egin daiteke. Getxon egunerokoan euskaraz jardun ahal izateko informazio lagungarria eskainiko du buletinak. Euskaldun asko

«Euskaldunon arteko konplizitatean oinarritutako komunikazio ekimena da»

ditugu udalerrian baina askotan ez dakigu nora jo gure egunerokoan euskaraz jardun ahal izateko. Arazo hori saihesteko laguntza aparta izango da "Kliska". "Getxoko euskaldun guztien begietara heltzea" nahi dute egileek.

Baina ez da hori bakarrik Bizarra Lepoanek eta Egizuk eskainiko digutena. Getxon euskaraz antolatzen diren ekitaldiei buruzko informazioa eta ordenagailu eta internetaren inguruko argibideak ere aurkituko ditugu hilabetekarian, artikulua eta elkarrizketekin batera. Lehenengo alean, XUXEN zuzentzaile ortografikoari buruzko informazioa, agenda, Berbalagun taldean parte hartzeko argibideak eta elkarrizketak aurkituko ditugu beste artean.

Harpidetza egiteko: info.kliska@gmail.com

Zure publikatzen hemen
Zure publikatzen hemen
Zure publikatzen hemen

94 491 13 37

Aner Toscano > Askapenako brigadista

"Fidelekin, Raulekin edo beste norbaitekin, baina, sistemak aurrera egingo du"



Argazkian, Aner Toscano 22 urteko algortarra

Askapenako brigadista legez Kuban ibili zen Aner Toscano abuztuan. Fidel Castrok behin-behinean boterea Raul anaiaren esku utziko zuela iragarri eta biharramunean heldu zen brigadista taldea herrialde iraultzailera. Bizarra baino zerbait gehiagogaz bueltatu da algortarra.

—Fidelen erabakia dela, zelan dago giroa?

—Egoera berezia zen, baina oso-oso lasai dago. Kontatutakoaren arabera, gehiengoa sozialista baino fidelista ei da; Raul militarra da eta agian herriak ez lioke emongo Fidelek daukan hainbesteko babesa. Fidel Iraultzaren buru biziduna da, badakite ez dela betiko, baina ordezkaite da. Hala ere Fidelekin, Raulekin edo beste norbaitekin sistemak aurrera egingo du; herri batasuna nabaria da, eta etsaia nor den ondo dakite. Badira ministro batzuk oso gazteak, Iraultza eta gero jaiotakoak, eta Iraultzarekin bat jarraitzen dute.

—Askok aldegin nahi dute, gosea dago...

—Hori manupalizio itzela da! Hemen jasotzen dugun informazioa eta han egonda ikusitakoa kontrakoak dira. Joan baino lehen

miseria gehiago ikusiko genuela uste genuen, eta han guztiek, lan egin ala ez, badute zer jan, familia bakoitzak doan den hornidura-libreta du, ez zer jan ez dagoelako, familia guztiek jan dezaten baino. Eta libreta horretan ez daude bakarrik arroza eta indabak! Hezkuntza doan da maila guztietan, astronauta izan gura baduzu ere. Gero, adibidez, ikasle ume baten gurasoek goi mailako lanpostua badute ume horrek aukera gehiago eduki ditzake agian, aita edo ama langabezian dagoen edo arazodun familia bateko ume batek baino (aita alkoholikoa, ezindua...); bada eskolan behintzat guztiek aukera berdina izan ditzaten bazkaria eta azkaria eskolan bertan ematen dizkiete. Osasuna ere unibertsala da, nahiz eta kanpoztarra izan lehenengo harrera doan da.

—Zein izan da egitekoa brigadista legez?

—Aste bat Habanan eman genuen eta beste bi Ciego de Avilan. Alderdiarekin, gizarte-langileekin, APPkoekin (Herri Boterearen Batzordea), UJCekoekin (Gazte Komunisten Batasuna), FEUkoekin (Unibertsitateko Ikasle Federazioa)... batu ginen. Askapenako brigadista legez herrien arteko elkartasuna bultzatzea da asmoa, zelanbait elkartruke politiko eta kulturala egitea. Han azaltzen ziguten zelan antolatzen ziren eta guk Euskal Herriaren egoera, ezkerrekoa eta abertzalea den ikuspuntu batetik. Gure egitekoa da gure berri gure ahotik jaso dezatela eta guk ere

«Oso aldatuta bueltatu naiz, beste ikusmira batekin»

egiazko informazioa jasotzea. Ez goaz hara ezer irakastera. Bueltan jasotakoa hemen zabaltzea da gure ardura. Aldatuta bueltatu naiz, beste ikusmira batekin. Herriak duen batasunak harritu nau eta materiala baino aberasgarriagoa den zerbaiten truke lan egiteko duten gogoak. Kuba eta sistema benetan, ezagutu nahi badituzu, Askapenarekin joatea aholkatuko nizuke. m

Nazioarteko trikitixa jaialdia Portugal, Errumania, Alemania eta Euskal Herriko trikitilariak jardungo dute hilaren 10ean



Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eta Getxoko Euskara Zerbitzuaren eskutik helduko da ikuskizuna herrira

Azaroaren 10ean (20:00etan) Getxo Antzokian ospatuko da V. Nazioarteko Trikitixa jaialdia. Bertaratzen denak eskusoinu txiki edo portugaldar, errumaniar, alemaniar eta euskal trikitixaren doinuak entzuteko eta, beraz, tradizio desberdinak ezagutu eta dastatzeko aukera itzela edukiko du. Oholtza gainean jardungo dutenak hurrengoak dira: Chaozinha Ahizpak (Portugal), Julian Cobzaru eta Ion Cobzaru (Errumania), Cathrin Alisch (Alemania) eta Alaitz Telletxea (Euskal Herria), eta amaitzeko, jaialdia-ri xarma berezia emango dioten Xabier Amuriza eta Mixel Ducau. Batetik, Portugalgo lau ahizpek Gondaremeko errepertorio tradizionala lantzen dute, Gomdarem bailara Galiziaz mugatzen duen Minho ibaiaren alboan dago, eta

uzta biltzeko lan neketsuan kantatzen zen legez abesten jarraitzen du talde honek. Bestetik, Bukaresten jaiotako Cobzaru lehengusuek txikitatik jotzen dute biek soinua, baina Getxon Ionek ahotsa jarriko dio ikuskizunari. Ostean, Maideregaz batera bikotea osatu eta Euskal Herriko hamaika plaza poztu zituen Alaitz Telletxeak oraingoan Cathrin Alisch alemaniar konposagile, biolin jotzaile eta kantariagaz batera jardungo du. Amaitzeko, Mixel Ducau gitarra jole handia alboan daukala Xabier Amurizak "Bizkaiko koplak zaharrak" entzunaldiagaz gozatuko dizkigu belarriak. Bestalde, sarrerek 5 euro balio dute aurretik erosiz gero (egunean 6 euro) eta dagoeneko salgai daude. m

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAREN BATZAR NAGUSIA

Bizarra Lepoan elkarteak ezohiko bilera deitu du arazoaren 16rako arratsaldeko 20:00etan Aldai Patronatuan. Honetan, kargu aldaketak bozkatu eta batzordearen berri jaso ahal izango dute bazkideek. Batzarraren ostean luntxa egongo da, horregatik, joango direnek aurretik 94 491 43 57 telefonoan konfirmatzea eskatzen dute antolatzaileek. Bestalde, azaroaren 11 eta 12rako, Zaztarrainera irteera antolatuta dago *Bapiruke* proiektuaren barnean. Izena emateko azken eguna azaroaren 9a izango da, salneurria 60 eurokoa izango delarik (50 euro bazkideentzat). Horrez gain, *Berbalagun* egitasmoan izena emateko epea irekita ere badago.

EMAKUMEAREN ETXEA ETA GAZTELEKUA URGULEKO LOKALETAN

2007an hasiko dira Urguleko kultur etxea ohia berritzeko lanak. Azpiegiturak hobetu eta instalazioak ezinduentzako egokitzeaz gain, Emakumearen etxeari eta Gaztelekuari lekua egingo zaie. Bigarren honen diseinuan herriko gazteak parte hartzen ari dira, eskainitako ekintzen eta apaintzearen inguruan ideiak botatzeko aukera dutelarik. Bestalde, Udaleko Berdintasun Planaren barnean, Emakumearen etxea proiektatu dute bertan. Beste zerbitzuen artean, gizonezkoak etxeko lanetan trebatzeko ikastaroak eta emakumeen kontrako indarkeria saihesteko tekniken ikastaroak egingo dira.

BOSTEKO 06 PINTURA ERAKUSKETA ERROMON

Hilaren 16ra arte Jesus Mari Lazkano, Javier Riaño eta Xabier Morrás margolari handien lanak gozatu ahal izango dira Erromoko aretoan. Oso estilo ezberdinak izan arren, hiru artista hauek arkitekturak (eraikinen barrualdeak eta kanpoaldeak) jorratzen dituzte euren lanetan.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Leioako Erabiltokia

Herriarren artean euskararen erabilera sustatzeko lokala ireki du Euskara Zerbitzuak

Iturribide kalean dagoen egoitzan egindako txakolin dastaketa batez eman zioten hasiera, joan den urriaren 20an Erabiltokiaren egitasmoari. "Euskaltegia euskaraz ikas-teko da. Erabiltokia, erabiltzeko", horrela definitu du Joxe Belmontek Leioako Euskara Zerbitzuko arduradunak proiektu berria. "Toki fisiko batean euskaraz egin dai-

«Edozein kolektiborentzat irekita egongo da Erabiltokia»

tezkeen hainbat gauza eskainiko ditugu. Hasiera batean geuk antolatuko dugu dena, baina denboragaz edozein kolektiborentzat irekita egongo dela argi utzi gura dugu".

Umeen kasuan ez bezala, gazteen zein helduen artean euskara bultzatzen ez zela konturatu ziren Euskara Zerbitzukoak eta herriar talde horri zuzendutako programa eratzea erabaki zuten. "Umeek baliabide ugari dituzte; Olgetan eta Txilinbueltaka egitasmoak esatenako. Benz, Erabiltokia beharrezkoa dela uste dugu".

Oraingoz, otsailera arteko programazioa besterik ez dute osatu, baina ordutik aurrera ere bestelako ekintzak antolatuko dituztela iragarri du Belmontek. "Hainbat ekintza antolatu ditugu, adin ezberdinetako pertsonen zuzendutakoak: ardo dastaketa, funky ikastaroa, masaje tailandiarra, hitzaldiak, dantza zingaroen ikastaroa... Horrez gain, ikasturte osoan zehar bertsogintza



Erabiltokian egindako txakolin dastaketa

tailerra eskainiko du Erabiltokiak. Kasu horretan, talde bi egingo dira: bata, gazteentzat (bertsoak osatzen ikasiko dute); bestea, helduentzat (entzulearen ikuspuntutik landuko da bertsoa: doinuak, errima, arauak, teniak...). Gazteen ikastaroa martitzeneko izango da, azaroaren 14tik maiatzaren 15era arte, 18:00etatik 19:30era. Nagusiena, berriz, azaroaren 21ean hasi eta maiatzaren 15ean amaituko da. Kasu horretan saioak hamabostean behin izango dira, 19:30etik 21:00etara. m

Datu batzuk

- **Non:** Iturribide kalea, 6.
- **Noiz:** urriaren 20tik aurrera.
- **Norentzat:** euskara erabili eta ondo pasatu gura duen edonorentzat.
- **Ekintzak:** txakolin dastaketa, funky ikastaroa, masaje tailandiarra, hitzaldiak, capoeira, dantza zingaroak, perkusio afrikarra, argazkigintza digitala, bertsogintza...
- **Izena emateko:** deitu 692 730 196 telefono zenbakira edo SMS bat bidali.

Cineforum Perseo

"Oso ezagunak edo komertzialak diren pelikulak saihesten ahalegintzen gara"



Al Pacino da Carmenek gehien atsegin duen aktorea. Harremanetarako: perseozineforum@hotmail.com

Leioako Perseo Zineforumeko arduraduna da Carmen Galan. Taldearen hastapenetan ez zela egon aitortu duen arren, bera da orain filmak antolatzeko lana beregain hartu duena. "L.A. Confidential botatzen zutelako joan nintzen zineforumera lehenbiziko aldiz, ondo eginda dagoen zine beltza maite dut!-eta", azaldu du zinemazaleak. "Gutxi gorabehera, hiru urte danamatzagu elkarte moduan behar egiten. Hasieran, Sakoneta ondoan dagoen osasun zentroan eskaintzen ziren filmak eta doakoak ziren".

Zineforumak zikloa eskaintzen ditu pelikulak; gaia, zuzendaria, aktorea edo zine motaren arabera. Proiektzioa baino lehen filma aurkeztu eta amaitzerakoan ikusitakoaz

eztabaida egiten dute.

Aurten, immigrazioari, zuzendariak izan diren aktoreei eta aktore klasikoei buruzko zikloak prestatu gura dituzte zineforumekoek. Bestalde, azaroan zehar Frantziako pelikulak eskainiko dituzte: *Pintar o hacer el amor* (azaroak 7), *De latir mi corazón se ha parado* (azaroak 21) eta *La vida soñada de los ángeles* (azaroak 28). "Denetarik eskaintzen dugu, baina oso ezagunak edo komertzialak diren filmak ekiditen saiatzen gara; izan ere, horiek euren lekua badaukate".

Publikoaren parte hartzea garrantzitsua dela uste du Carmenek. "Parte hartzeko eta ideiak botatzeko posta elektronikoa abian ipini dugu". m

ROCKAREN OLERKARIAK IZANGO DIRA KULTUR LEIOAN

Rock artista askok poesiaz eta letraz beraian abestiak osatu dituztela ikusita, emanaldi bereziak antolatu dituzte Ambiguan. Azaroaren 16an, esaterako, Quique Gonzalez eta Aurora Beltranen txanda izango da, 20:00etan. Hilean zehar, bestelako artistak ere taula gainean ikusteko aukera izango dugu: Antonio Vega, Niko Etxart, Josele Santiago, JC Perez... Sarrera, 10 euro.

IRAKURKETA SUSTATUKO DU LEIOAKO LIBURUTEGIAK

Irakurketa sustatzeko kanpaina abian jarriko dute EAEko zortzi liburutegik, tartean, Leioakoak. *Irakurri* proiektuaren hirugarren fasea da honako hau eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendaritzak kudeatzen du. Azaroaren 17ra arte, beraz, hainbat ekintza izango dute eskuragarri adin guztietako leioaztarrek: ipuin kontalariak, hitzaldiak, irakurketa gidak... Esan bezala, Leioaz gain beste zazpi dira egitasmoan parte hartuko duten udalerrak: Otxandio, Arrigorriaga, Etxebarri, Laudio, Eibar, Irun eta Gorliz.

MOZART ETA MUSIKAREN MUNDUA GOZATZEKO AUKERA

Mozarten jaiotzaren 250. urteurrena dela-eta, musikari ospetsuaren biografia, konposizio esanguratsuenak eta bitxikeriak berrikusiko ditu, Ambiguan, azaroaren 13tik 26ra arte egingo den erakusketa batek. Gainera, garai hartako beste pertsonaia interesgarri batzuk ere emango dira ezagutzera, baita XVIII. mendeko ohitura eta gertaera garrantzitsuenak ere. Horretarako, audiogida, joko interaktiboak eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dituzte ekimenaren antolatzaileek. Liburu eta diskoen zozketa ere egingo dute.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Antonio Perez > Asbestos dokumentalaren zuzendaria

“Batzuek bazekiten lantegian hartutako zerbaitegatik hilko zirela, baina ez zekiten zelan salatu”

Antonio Perez Irudi eta Soinu departamenduko irakaslea da Ategorri-Tartanga Institutuan. Beste irakasle batzukaz batera amiantoaren inguruko dokumentala amaitu berri du eta aurkezpen lanetan buru-belarri dabil egunotan. Amiantoak eragindako minbizia gogor astindu zuen Ezkerraldeko eta Erandio inguruko lantegietan ibilitako behargin asko. Arazo horren berri eman gura izan digu irakasle eta zuzendariak *Asbestos* film laburrean.



Argazkian, Dani Rioseco eta Antonio Perez

—Zergatik aukeratu zenuten amiantoaren gaia?

—Hasiera batean ekologiaren gaia landu gura genuen, gizartearen ondorioen berri emateko. Dokumentala prestatzen ari ginela, Errekaortuko lantegi batean bizirik irteerako inor gelditzen ez zela esan zigun iturri batek. Hori ikertzen hasi ginen eta gaiagaz aurrera egitea erabaki genuen. Amiantoaren inguruan nahiko dakien CCOOko Jesus Uzkudunegaz kontaktuan jarri eta horren gaineko gauza piloaz azaldu zigun. Horrez gain, arazoa pairatzen duten lau pertsonen testigantzak jaso ditugu.

—Zer da amianto eta zer da horren inguruan gertatzen dena?

—Hainbat enpresatan erabiltzen zuten materiala da (gaur egun ere leku batzuetan erabiltzen jarraitzen dute): suhiltzaileek suaren kontra egiteko jantzen duten jantzetan, lantegi batzuetako arraboletan... Bestalde, amiantoak fabrikatzen duten lekuak ere badaude. Jende asko egon da material horregaz beharrean inolako babes barik, nahiz eta lantegi askok horrek eragiten zituen kalteen berri izan. Biriketara heltzen diren partikula oso txikiak dira amiantoarenak eta minbizia

eragiten dute.

—Zer gertatu da beharginakaz?

—Batzuk hil egin dira eta bazeuden, gainera, lantokian hartutako zerbaitegatik hilko zirela zekitenak, baina ez zekiten zelan salatu. Horrez gain, oraindik ez dute gaixotasun profesionaltzat jo eta epaiketetan sartzeko indarririk ez daukate askok, egin beharreko bidea luzea da eta.

«Oraindik ez dute amiantoarena gaixotasun profesionaltzat jo»

—Ikasleek burutu dute proiektua?

—Ez. Haien euren lanak egiten dituzte dagoeneko, beraz, irakasleakaz eta profesionalakaz behar egitea pentsatu genuen (ikasle batzuek ere parte hartu duten arren). Ez da eskolako lana izan, bertoko logotipoa agertzen bada ere. Horrek zailtasunak eragiten ditu lana saltzeko orduan, baina momentuz ondo doala uste dut. Halere, oraindik ez daukagu banatzailerik...

—Orain zer egingo duzue filmagaz?

—Estatuko telebista kate batek proposamena egin digu *Asbestos* emititzeko. Momentuz ez dakigu zer gertatuko den... Daborduko badaukate dokumentala, baina ez naiz ezer gehiago esatera ausartzen.

—Pozik orduan?

—Bai! Gauza asko ikasi ditugu ondoren ikasleei azaltzeko. m

Trabudu Dantzari Taldea

30 urte bete ditu Astrabuduko dantza taldeak



Encarni Perez eta Eva Munariz taldeko kideak

Urteak abuztuan betetzen baditu ere, orain dela aste batzuk ospatu zuen Astrabuduko Trabudu Dantzari Taldeak bere XXX. urteurrena. 1976an, aurretik herriko beste talde batzuetan ibiliak ziren Jose Andres Mendigurenek, Mendi, eta Javier Intxaurbek talde berri bat sortzea erabaki zuten.

Gaur egun, 109 dantzari osatutzen dute Trabudu eta, dantza egiteaz gain, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte: Olentzeroren kalejira, aratusteak, gurasoentzako ikastaroak... Atzerrian ere egon dira askotan; Andaluzian, Frantzian eta Italian, esaterako. “Argi utzi gura dugu eguneroko zereginean ezinbestekoa dela bazkideen eta gurasoen ahalegina”, nabarmendu du En-

carni Perez taldeko kideak.

Aurten, urteurrena dela eta, ohikoa dena baino lan gehiago eduki dute dantzariak. “Urteurrena, berez, abuztuaren 10ean izan zen. Herri bazkaria, erromeria, puzgarriak, antzerkia... antolatu genuen egun horretan”, azaldu du Encarni. “Orain dela gutxi, berriz, emanaldi berezia eskaini dugu, gaurko eta antzinako dantzariakaz”. Horrez gain, jaietako pregoia irakurtzeko aukera eduki zuten. “Jai batzordea oso ondo portatu zen gugaz. Kalejira berezia antolatu eta omenaldia egin ziguten”, azpimarratu du gazteak. Izan ere, herrian oso talde garrantzitsua da Trabudu (ekintza piloan parte hartzen du) eta ospakizunak ez ziren edozelakoak izan. m

VI. IPUIN LEHIAKETARA AURKEZTEKO EPEA IREKI DUTE

Erandioko bizilagunek eta bertan behar egiten duten irakasleek parte hartu ahal izango dute Euskarazko VI. Ipuin Lehiaketan. Egile bakoitzak sei orrialdeko lan bi aurkeztu ahal izango ditu gehienez eta gaia askea izango da. Orriok alde batetik bakarrik idatzita joan behar dute, ordenagailuz edo idazmakinez. Lehiaketa kategorio ezberdinetan dago banatuta: 8 urtekoak, 9tik 10 urtera bitartekoak, 11tik 13 urtera bitartekoak eta 14 urtetik gorakoak. Lanak Kultura arloan aurkeztu behar dira abenduaren 1a baino lehen eta saria udalerriko dendetan erabiltzeko txekak izango dira.

QUADS-EN ZIRKULAZIOA KONTROLATUKO DUTE ASTRABUDUAN

Astrabuduko erdialdetik igarotzen diren quads-en zirkulazioa kontrolatuko du Erandioko Udaltzaingoa. Mendian erabiltzen diren lau gurgildun motorrak dira quads-ak eta bizilagunengan eragiten duten ezinegona ikusita, neurriak hartzea erabaki du Udalak. Zarata eta gidari batzuek modu arriskutsuan gidatzen dutela dira auzokideek salatutako arazorik nabarmenenak. Udalak jakinarazi duenez, asteburuetan gertatzen dira tirabira gehienak.

ASIER MENTXAKA ARGAZKILARIAREN ERAKUSKETA

Erakusketa ibiltaria da Asier Mentxaka UK aldirikariko argazkilaria, beraz, aurreko zenbakietan aipatu bezala, Uribe Kosta eskualdeko hainbat udalerrian izango dugu ikusgai. Hain zuzen ere, oraingoan, Erandion izango du gura duenak Mentxakaren lana ikusteko aukera. Azken 5 urteotan ateratako erretratu guztien artean, 20 argazki aukeratu ditu erakusteko Getxoko argazkilariak. Azaroaren 13tik 24ra arte egongo dira irudiok ikusgai, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean.

Arasa
Sukalde eta Komunitaroko Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

GAZTEENTZAKO TXARTELAK EGINGO DITUZTE SOPELAN

Nazioarteko Ikasle-txartela, Nazioarteko Irakasle-txartela, Nazioarteko Gazte-txartela eta Aterpe-kide-txartela egingo ditu aurrerantzean Sopelako Gazte Informazioko Bulegoak. Izapideak internetez (www.gazteukera.euskadi.net), bulegoan bertan edo Udaletxean egin ahal izango dira. Txartela horren jabeari beharpenak egingo dizkiote Estatuko zein azterriko hainbat erakunde publiko zein pribatu, hala nola, museoetan, aterpetxeetan, zinema aretoetan, antzokietan, ikuskizunetan, bidaietan, garraiobideetan, etab.

250.000 PERTSONAK ERABILI DITUZTE IGERILEKUAK

250.000 bat pertsonak erabili zituzten Abadesoloko igerilekuak 2005-2006 ikasturtean zehar. Guztira, 8.100 dira izena eman duten pertsonak. Kiroldegia kudeatzen duen Servicio enpresak jakinarazi duenez, 4.500 orduz egon ziren instalazioak irekita, 2005eko abuztua eta 2006ko uztaila bitartean. Ehun bat ikastaro eskaini dira; arrakastatsuenak: pilates, ballet, powertono, aquafitness eta waterpolo. Hainbat izan dira ekintzetan parte hartu dutenak: ikasleak, hirugarren adinekoak, minusbaliotasun intelektuala duten pertsonak, etab.



Argazki erakusketa

20 urtean burututako ekintzen erretratuak jarriko ditu ikusgai Udal Euskaltegiak



Euskaltegiko ikasle eta langileak joan den ekainean

1986an ireki zituen bere atea Sopelako Udal Euskaltegiak eta bere 20. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatuko ditu ikasturtean zehar (oraindik batzuk zehazteke daude eta baliabide ekonomikoen bila dabiltza), tartean, daborduko Hall Kulturean ipini duten argazki erakusketa. Orduetgia arratsaldekoa da: 16:00etatik 21:00etara.

Erretratuak abenduaren 1era arte egongo dira ikusgai eta euskaltegiaren ibilbide osoan zehar ateratako argazkiak erakusten dituzte: irteerak, hitzaldiak, sagardotegira egindako txangoak, Santa Ageda, aratusteak, gaurko ikas-

leak, ikasle ohiak, irakasleak... 200 bat argazki bildu dituzte guztira; euskaltegiarenak batzuk eta ikasleek utzitakoak besteak. Bestalde, erakusketa azken egunean jaitxo bat egingo dute Hall Kulturean, eta horretan urte hauetan guztietan gertatutakoak berba egin eta zerbait hartzeko aukera egongo da.

Orain dela 20 urte hartu zituen Udal Euskaltegiak, aparteko baliabiderik gabe, ikasleak lehenbiziko aldiz. Hastapenetan zazpi ikasle talde zeuden guztira; gaur egun, ordea, 17 talde daude, hau da, 180 ikasle. Horrela, txiki geratu zaie Enrike Urrutikoe-txea kalean daukaten egoitza. ^m

Rakel Bonaetxea > mosaiko egilea

“Antoni Gaudi arkitektuak egindako lanagaz maitemindu nintzen berehala”



Rakel Bonaetxea etxeko lorategian egindako mosaiko kuttunenaren aurrean

Bartzelonara egindako bidaia baten ostean ekin zion Rakel Bonaetxea sopeloztarrak mosaikoak egiteari. Kataluniako hiriburuan zegoela, Antoni Gaudik eraikitako Guell parkea bisitatu eta arkitektuak egindako lanagaz maitemindu zen berehala.

Behin Sopelan, hainbeste miresten zituen mosaikoen antzeko zerbait egitea erabaki zuen Rakelek. “Nik neuk egin nezakeen galdetu nion neure buruari eta, ezer jakin barik, lehenbiziko mosaikoa burutu nuen etxeko lorategian”. Koloreetako axuleiua hartu eta berenganaren kontra zein mailu batez apurtu zituen. “Ondoren, nola itsasten diren galdetu nuen denda batean. Horrelaxe ikasi nuen”, gogoratu du Rakelek.

Senideengandik eta lagunengandik jasotako animoak ikustean, bigarren mosaikoa egitea erabaki zuen, baina tamaina handiagokoa oraingoan. “Gustukoan daukadan mosaikoa da, lorategi baten irudia egin nuen”, azaldu du.

Baina Sopelako artistaren obrarik ikusgarriena, duda barik, Mendieta kaleko bere etxea inguratzen duen hesiaren kanpoko

aldetik egindakoa da. “Etxea amaitzean kanpoko horma nahiko motx genatu zela iruditu zitzaidan, harri gris horregaz...”. Beraz, axuleiua erosi eta proiektu berria abian jarri zuen. “Gauza koloretsuak atsegin ditut: lorategiak, loreak, animaliak... Musker batzuk eta itsasoa irudikatzea pentsatu nuen eta Interneten denbora apurtxu bat eman ondoren behar nuenagaz egin nuen topo”.

«Rakel Bonaetxea Txopel sarirako proposatu dute»

Senarrak horma zulatu ostean hasi zen Rakel beharrez eta, oraindik amaitu ez duen arren, ederra izango dela ematen du. Hain da handia herritarren artean lortzen ari den arrakasta, udalerrian banatuko diren Txopel sarietarako proposatu dutela. “Pozten nau horrek, egindakoa jendearen gustukoa dela probatzen du-eta. Orain dela urte bi hasi nuen kanpoko horma-irudia eta abendurako amaitzea espero dut. Pazientzia handia eskatzen duen zerbait da”.

**LAIKAK
Taberna**

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilton@euskalnet.net

4 bide pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

FUTBOL ZELAIA HANDITZEKO OBRAK

Berangoko Udalak, futbol zelaia hobetzeko obrak abiarazi ditu, herritar guztien esku jartzeko helburuarekin. Hiru hilabetez luzatuko dira obrak eta aurrekontua 825.000 eurokoa izango da, batz bestea. Zelai artifiziala, aldagela berriak eta argiztapen hobeak dira aurreikusita dauden aldaketa nagusiak. Hauei esker, Berangoko futbol taldeaz aparte, lagun artean jokatu nahi dutenek ere aukera izango dute. Obrak luzatzen diren bitartean, liga txapelketako partidak, Uribe Kostako beste zelai batzuetan jokatu dira, Barrikan eta Getxon, besteak beste.

ROL PARTIDAK ETA PINTXO DASTAKETA

Urriaren 20tik aurrera, rol partidak burutuko dira gaztelekuan ostiralero, arratsaldeko 17:00etan. Interesatuak izena emateko aukera izango dute bertan, 16:00etatik aurrera. Horrez gain, Gorosti Naturzale elkarteak, mikologi erakusketa eta pintxo dastaketa antolatu du azaroaren 12rako. Azken hau goizeko 9:00etan izango da, frontoian.

FAMILIA UGARIENTZAKO LAGUNTZAK 2007TIK AURRERA

Berangoko Udalak, %90eko hobariak emango dizkie familia ugarietako ondasun higiezinen gaineko zergan. Eskaria egiteko epea irekita dago eta azaroaren 30ean amaituko da. Eskatzaileek euren etxebizitza ohiko bizitokia dela frogatzeaz aparte, NANA, familia ugariaren titulua eta etxebizitzaren titulartasuna aurkeztu beharko dute udaletxean. Urtero emango diren diru laguntza hauez gain, Berangoko familia ugarietako, %50eko beherapena izango dute Kultur Etxeak antolatutako ikastaro eta tailer guztietan.

Golden Bawn

Rol eta estrategia jolasak Berangon



Santa Anako kultur ebxean elkartzen dira astero

Komunikabideetan noizbehinka kontu ilun eta arriskutsua bezala jarri badute ere, badago rola eta honen inguruko kultura praktika osasuntsu eta dibertigarria dela defendatzen duen jende asko. Berangon bertan, Golden Dawn gazte erakundea daukagu. 2005ean sortu zen ekimen hau Alaitz Barboia, Jorge Mirantes eta beste 8 lagunengatik, baina gaur egun, 26 kidek parte hartzen dute honetan. Santa Anako kultur etxean biltzen dira astero rol eta estrategia jolasetan aritzeko. Hala ere, ez da hau egiten duten bakarra, zuzeneko rol partidak ere antolatzen dituzte. Ikasturte honetan, gabonen ostean izango da zuzeneko eta aurreko

urtekoaren arrakasta ikusita, jende askok parte hartzea espero dute.

“Lagun berriak hurbiltzea gustatuko litzatez, jolasteko forma berriak eta jolas berriak ezagutzeko. Gainera modalitate asko bildumazkoak dira eta jende berria behar dugu trukatzeko”. Papera, arkatza, dado pare bat eta irudimen handia baino ez dira behar rolean dibertitu ahal izateko. *“Hona hurbiltzen den jendeak ondo pasatuko du, jolastera etorriko dira, nahiz eta ezohiko jolasak izan”.* Beraz, rol eta estrategia jolasak gustuko dituenak, badauka aukera Uribe Kostan. m

Harremanetarako: black_widow@hotmail.com

Matrako Mendi Taldea > Plentziako mendizaleak

“Gure artean **talderik ez daukan mendizale pilo dago**”



Argazkian, Nerea Perez eta Kike Kandales. Harremanetarako: 667 602 357

Plentziako inguruetan mendi talde baten premian zeudela konturatu ziren, besteak beste, Kike Kandales eta Nerea Perez; beraz, proiektua ahalik eta arinen aurrera eramatea erabaki zuten. Mendi taldeari zein izen ipintzea argi eduki zuten hasieratik, Matrako, zendutako Joseba Matrako lagunaren oroimenez. *“Onain dela urte bi hil zen Joseba. Mendizalea zen eta irteera bat egin gura genuen bakoitzean beste leku bateko talderen baten eman behar genuen izena. Plentzian talde bat sortzearen ideia berea zen eta omenaldi moduan egin dugu”*, azaldu du Kikek. *“Gainera, gure artean talderik ez daukan mendizale pilo dago”* gehitu du Nereak.

Daborduko 40 bat pertsonak eman dute izena Matrakon eta gehiago izatea espero dute egitasmoaren bultzatzaileek. *“Adin guztietako jendeak parte hartzea gura dugu”*, azpimarratu du Nereak. *“Aurreko egunean, adibidez, ilusio handiz etorri zitzaigun adin nagusiko bikote bat, mendira joan gura baina onain arte herrian ez zutelako aukerarik izan. Horrez gain, Gortizko gunasoen elkarteak ere*

deitu digu, bertako ikastolako umeentzat ekintzak antola ditzagun”.

Halere, eskarmentu handiko mendizaleentzat ere irteerak egingo dituztela argi utzi gura dute. *“Onain, jendeak afizioa hartzea gura dugu, taldea sendo dadin. Datorren urtean, berriz, Anetora joango gara, asteburupasa. Halere, nire benetako ametsa, Josebarena ere*

«Joseba Matrako omendu gura izan dugu talde honegaz»

bazen: urte batzuk barru Himalaiara trekking egitera joatea”. Oraingoan, ordea, Euskal Herriko zein inguruetako mendietan ibiltzeagaz konformatuko dira eta azaroan Valdeorejora egingo dute txangoa.

Abenduan, berriz, azoka egingo dute etxean pilotutako mendiko materialagaz. *“Goñi Portalekoek proposatutako ekimena da, erabiltzen ez diren pilo bat gauza egoten da eta etxean. Gura duenak bere materiala salgai ipini besterik ez dauka”*, animatu du jendea Kikek. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

cianoplan Reprografía

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kobrez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



LEMOIZKO GOIKOMENDIN BIZIKLETA ETA MENDI IBILBIDE BERRIA

Lemoizko Udalak igarobide berria ireki du Goikomendin, herritarrek 2,5 kilometroko ibilbidean zehar mendi bizikletaz ibiltzeko eta paseatzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, suhiltzaileentzat ere lagungarria izango da, hauei pasabidea erraztu eta suebaki funtzioa beteko du-eta. Pedro Botejara alkateak esandakoaren arabera, "garapen iraunkorra kontuan hartuz" ireki dute bidea; horregatik, "ekosistema ahalik eta gutxien kaltetzen" ahaleginu dira. Andraka eta Gasitua lotzea helburu duen proiektuaren lehenengo fasean sartuta dago ibilbide berria.

EKINTZA EZBERDINAK GORLIZEN "IRAKURRI" PROIEKTUAREN BARNEAN

Gorlizko liburutegiak, Eusko Jauriaritzako Kultur Sailak bultzatutako "Irakurri" proiektuaren barnean, ekintza ezberdinak antolatu ditu urriaren 15a eta azaroaren 17a bitartean. Ekimen honekin, irakurketarako zaletasuna bultzatu gura dute gazteen eta nagusien artean. Ipuin kontalariak, hitzaldiak, erakusketak... eskaintza zabala izango da hilabete osoan zehar. Osasun zentroan adibidez, umeentzako liburutegi bat jarriko dute. Ekintzak egun ezberdinetan gauzatuko dituzte eta liburua izango dute ardatz nagusi. Azaroaren 17an egun handia izango da, Liburutegien Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

URIBE KOSTA

Lurralde Plan Partziala ezartzen ari dira



Barrikan txalet mordoak eraikitzen ari dira

Herriak gura ala ez, LPP delakoa (Lurralde Plan Partziala) errealtate bihurtzen dabil gutxinaka. Ondo dakigu hori Txorie-rin eta Uribe Kostan bizi garenok, guk ja-sango ditugu-eta proiektu horren eragin dei-garrienak. Barrika, Armintza eta inguruko beste herri askotan etxebizitza kopuruak biderkatuko dituzte. Etxebizitzaren eredu-a aldatu egin gura dute, baserriak eta txaletak alde batera utzi, eta bizilagun gehiago har ditzaketen eraikinak sustatu. Herri guztietan merkataritza eta zerbitzuarako guneak

erreserbatuko dituzte, herriei bizia emateko asmoz.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak, interes naturaleko guneak errespetatuko dituela iragarri du; besteak beste, Gorliz-Armintza arteko parkea aipatu ditu. Uribe Kostan eta Artxandan natur guneak aurreikusitako dituzte, herritarren deskantsurako bideratuko direnak. Batzuen ustez aurrerakuntza dena, debaldeko hondamendi naturala da besteen ustez. Gauza bat argi dago: LPPa gainean daukagu. m

Aza. 6 - 19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Mozart eta musika.** Algortako erakustaretoa. Azaroaren 10era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

► **Bosteko 06.** Jesus Mari Lazkano, Javier Riaño eta Xabier Morrasen margolanak. Erromoko aretoa. Azaroaren 16ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

LEIOA

► **Biar kolektiboa.** Kultur Leioa. Azaroaren 9tik 26ra arte. 10:00-20:00.

► **Mozart eta musikaren mundua.** Ambigu. Azaroaren 13tik 26ra arte. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

LUTXANA

► **Bulle (ikus-entzunezkoa).** Eider Kadimoren lana. Lutxanako eskolak. Azaroaren 4tik 12ra arte.

► **Palestina (argazkiak).** Lutxanako eskolak. Azaroaren 13tik 19ra arte.

ANTZERKIA

GETXO

► **Tengamos el sexo en paz.** Charo Lopez. Getxo Antzokia. Azaroak 11, zapatua. 20:00. Sarrera: 12/15 euro.

LEIOA

► **Demasiado humano.** Trasposos. Auditorium. Azaroak 10, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.

► **Zirko iluna.** Umeentzako antzerkia. Hortzuga. Auditorium. Azaroak 19, domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.

LUTXANA

► **Medio metro.** Lutxanako eskolak. Azaroak 10, barikua. 20:00. Sarrera: dohainik.

► **Keli Taldea eta Plataforma Tirante**

Azaro Kulturala Lutxanako auzoan

Lutxanako Keli Taldeak eta Plataforma Tirantek makina bat ekintza antolatuko dituzte aurten ere azarorako. Orain dela bost urte hasi zen Keli Taldea *Azaro Kulturala* egitasmoagaz, Lutxanan herritarrentzako gauza gutxi antolatzen zela ikusita. Programa zabala eskainiko dute antolatzaileek: kontzertuak (Cujo, Green Valley...); antzerkiak; tailerrak (artisau garagardoa zelana egin, eskulanak, idazketa tailerra...); ikastaroak (malabareak, mugimendu eszenikoa...); erakusketak... Urte osoko ikastaroak ere antolatzen dituzte, Tai Chi eta Yoga esaterako. Martxan jartzen dituzten ikuskituak zein ikastaroak dohainik dira, herriko jendeak parte har dezan. Hurbildu zaitetz hil honetan Lutxanako eskoletara!

• **Non:** Lutxanako eskolak • **Noiz:** azaroan zehar

► 11 temas y 1 mitin.

Nuria + DJ. Lutxanako eskolak. Azaroak 18, zapatua. 23:00. Sarrera: dohainik.

► **La mujer cuerda.** Lutxanako eskolak. Azaroak 19, domeka. 20:00. Sarrera: dohainik.

ZINEMA

GETXO

► **Syriana.** Getxo Antzokia. Azaroak 8, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.

► Agua.

Jatorrizko bertsioa. Getxo Antzokia. Azaroak 10, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► Garfield 2.

Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Azaroak 12, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.

► Munich.

Getxo Antzokia. Azaroak 15, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.

► Manderlay.

Jatorrizko bertsioa. Getxo Antzokia. Azaroak 17, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► Jorge el curioso.

Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Azaroak 19, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.

LEIOA

► **Pintar o hacer el amor.** Frantziako zinearen zikloa. Auditorium. Azaroak 7, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

BESTEAK

GETXO

► **XXI. Udazkeneko Kontzertuak.** Getxo Antzokia. Azaroak 6 (sarrera gonbidapen bidez) eta 7 (sarrera: 10 euro). 20:00.

► **V. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia.** Getxo Antzokia. Azaroak 10, barikua. 20:00. Sarrera: 5/6 euro.

► **Musika eta olerki errezitaldia.** Orphenica Lyra. Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Azaroak 10, barikua. 19:30. Sarrera dohainik.

► **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxea. azaroak 10, barikua. 19:00. Sarrera dohainik.

BARRIKA

► **Tomas eta arkatx magikoa.** Ipuin kontaketa. Barrikako Udaletxea. Azaroak 11, zapatua. 11:00.

► **Emakumearen Kontrako Bortxakeriaren Eguna.** La Recordadora kontaketa eta solasaldia. Barrikako Udaletxea. Azaroak 25, zapatua. 12:30.

LEIOA

► Poetas del rock.

Quique Gonzalez eta Aurora Beltran. Auditorium. Azaroak 16, eguena. 20:00. Sarrera: 10 euro.

LUTXANA

► **Artisau garagardo tailerra.** Lutxanako eskolak. Azaroaren 13tik 16ra arte. 18:00-21:30. Dohainik.

► **Reggae kontzertua: Green Valley.** Lutxanako eskolak. Azaroak 17, barikua. 24:00. Sarrera: dohainik.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
25 ANIVERSARIO
URTEURRINA
1981 - 2006

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Itsasoruntz ekimena

Urriaren 21ean goizez eta festa giroan, ia 300 surflari -eta sasisurflari ere bai-itsasoratu ziren Algortako Portu Zaharrean etengabe urratzen diren euskal presoen oinarizko eskubideen alde. Herri honek bizi duen prozesu garrantzitsu honi euren ekarpena egin gura izan zioten horrela surflariak; gainera, presoek eskubideak zein euren senitartekoenak jarrera politikoak baldintzatzeko ezin direla erabili aldarrikatu zuten. Bultzatzaileek egitura politikoetatik at, ekimen malgu eta bateratzaile legez aurkeztu zuten *Itsasoruntz* ekimen arrakastatsua .

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Lasterketa Portu Zaharrean

A ze nolako irudi originalak topa daitezkeen Getxoko Udal Liburutegiko artxiboan. Jaietan, Portu Zaharrean zegoen garbilekuaren aurrean ateratako erretratua da honako hau eta hara non ikusten ditugun XX. mende hasierako neskameak diruditen andreak karraderan, buruan murkoak dituztela. Ikusleen artean, berriz, euren Neguriko nagusiak izan daitezkeenak guardasolen babespean, badaezpada ere...

PORTU ZAHARRA, XX. MENDEAREN HASIERA

[berbetan]

Willy Uribe (Bilbo, 1965) 1977an jarri zen taula baten gainean lehenbiziko aldiz. Orduetik, bere bizitza surfaren inguruan jira-biraka egon da; baina lantzean behin, mundu horrek eragiten duen zorabiotik ihesean edo, kresala bere gorputzetik astindu eta kirol horregaz zerikusirik ez duen proiekturen batean murgiltzen da. Askori erromantikoa iruditu dakiokkeen bizimodua darama Uribe Kostako argazkilari, surflari eta idazleak, estereotipo horretatik aldentzen ahalegintzen den arren. Izan ere, bidaiaria ere bada Willy eta taula soinean daukala munduko makina bat bazterretara abiatu da olatuen bila. Gure artean dagoenean, berriz, urrutiko lurralde exotiko-etan batutako materialagaz liburuak eta erreportajeak idazten ditu: *Cuentos Revueltos*, *Ciudad Bilbao*, *Crónicas del salitre...* Oraintsu *Nanga* izeneko bere azken nobela plazaratu du.

Willy Uribe

Gizon polifazetikoak

Testua: **Oiane Moran** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Idazle, naturaren defendatzaile, bidaiari, argazkilari eta surflaria; ez dakit zeozer ahazten dudana... Gogokoen zein daukazu?

—Aita ere banaiz. Gatxa da aukeratzea, baina agian idaztea da gehien asetzen nauena. Argazkigintza, berriz, ofizioa da eta horri esker bidaiatu, surf egin eta jendea ezagutu dut.

—Has gaitzen Willy Uribe argazkilariak berba egiten, ezagunena agian. Zelakoak izan ziren zure hastapenak?

—Argazkilaria nire alderdi ezagunena da, bai. Erandion hasi nintzen, formakuntza profesionaleko institutuan. Oso ikasle txarra nintzen eta gurasoek hara bialdu ninduten. Argazkigintza bideo-gintza baino gehiago gustatu zitzaidan eta aitak kamera bat oparitu zidan, 1984an. Orduan hasi zen dena. Hasiera batean, gertu nuen guztiari erretratu ateratzen nion eta ikasketak amaitu bezain laster

surfaren inguruko aldizkaritxoak martxan ipini nuen.

—Gehienek olatuei eta surflariei argazkiak ateratzeagatik ezagutzen zaituzte. Erosoen sentitzen zaren esparrua da horri?

—Hoberen saltzen dakidana da argazkia. Ez dago konpetentzia handirik, gero eta gehiago dagoen arren... Argazkiak atera-

—Zortzi urtez jardun nuen horretan. Guztira, 2.500 ordu eman nituen airean, penintsula osoan zehar, baita Costa Rican ere. Paisajeak, komunikabideak, enpresen eraikinak etab. ateratzen nituen. Horrez gain, editorialetzako lanak egiten nituen lantzean behin. Behar horrek leku eder-erak ikusteko aukera eman zidan eta esperientzia oso atsegina izan zen.

“Idaztea da gehien asetzen nauena; argazkigintza, berriz, ofizioa da”

tzeaz bizitzea oso gatxa da; oso profesional onak daude eta oso txarto ordaintzen dute. Surfak gustuko dut eta argazki mota horretan nire lekutxoak egitea lortu dut. Halere, basoak, arkitektura, jendea, etab. ere erretratatzeko gustatzen zait.

—Ezin dugu ahaztu aireko argazkilari-tza oblikua.

—Nabarmenduko zenukeen erreportajeren bat?

—Orain dela gutxi Txilen egindakoa, Atacamako kostaldean. Basamortura joan ginen olatuen bila. Aurreko urtean Saharan egon nintzen eta esan beharra daukat basamortuak maite ditudala. Txilen, 4.000 kilometroko kostaldean,



olatu ikaragarriak daude eta ez dago inor. Horrez gain, ezagutzen duzun jendea, lekuak... Idazteko materiala pilatu dut.

—Zeintzuk dira surfaren argazkigintzari buruzko ezaugarri nagusiak?

—Unea batez ere; momentu eta toki ego-kian egon behar duzu irudia ateratzeko. Gainera, oso engainagarria da; izan ere, olatu txiki batzuk ikaragarri bihur ditzakezu, edozein gaztetxo zoratzeko moduan atera. Horrez gain, surfearn mota biko erretratuak daude: lurretik eta uretatik ateratakoak. Azken horiek dira gatxenak egiteko; izan ere, sasoi onean egon behar da korronteen kontra egiteko. Ni ez nago gura izango nukeen bezain indartsu eta batzuetan sufritu egiten dut itsasoagaz...

—Surfa argazkigintza baino lehenago sartu zen zure bizitzan, 1977an gutxi gorabehera. Zelakoa zen orduko surfa?

—Orain hasi diren gaztetxoentzat gaur egungo garaia kristona izango da, guztiak dauka-eta bere momentua. Baina ordukoa ezberdina zen. Ez zegoen dendarik, ez materialik eta taulak zein jantziak konpartitu beharra zegoen. Ni ez nintzen lehenenengotarikoa izan, noski, surfa hemen 1964-an sartu zen-eta. Halere, ni hasi nintzeanean, zerbait marjinala zen oraindik askorentzat.

—Norbait surfearn ikusi zenuen lehenbiziko aldia gogoratzen duzu?

—Bai, Barinatxen, ni hasi baino urte bi lehenago. Nire anaiek egiten zuten.

—Eta zure hastapenak?

—Nire anaiaren taula batez, triangularran. Oso olatu txikiak ziren eta zutunik ipini nintzela gogoratzen dut, negu osoan zehar entrenatzen ibili ondoren. Orduan munduko erregea sentitu nintzen.

—Surfa eta bidaiak elkarri lotuta doaz askotan. Surfista hobea zara mundua eza-gutzen duzunean?

—Nire ustez bidaiatzea oso ona da zentzu guztietan, ez bakarrik surfearn. Ematen du surfa aparteko mundu bat dela, baina denetarik dago. Egia da estereotipo ugari dagoela, askotan surfaren munduak berak

sortutakoak. Kalean ikusi eta surfariak ematen ez duten pertsona ugari ezagutzen dut!

—Zein da surfearn aritzeko ezagutu duzun lekurik izugarriena?

—Izugarria... Mundaka da izugarria, Meñakotz egun handi batean edo Galea... Bestalde, Sumatra ondoan dagoen Bawa irla oso exotikoa da: oihana, olatuak...

—Eta zuegan eragin gehien izan duen lurraldea?

“Atzerrian nagoenean ez dut etxean asko pentsatzen”

—Sahara. Elkartasun piloa dago bertan eta tentsioa ere bai. Smarara sartzeko argazki kamerak ezkutatu behar izan genituen, turista moduan gindoazelako. Tentsioa nabarmena zen eta ezin zintezke inogaz fidatu.

—Askotan uste dugu gurea onena dela edo, behintzat, nahikoa dugula daukagunagaz. Hemendik irtetea mundua beste perspektiba batetik ikusten dugu...

—Hori pentsatzea ez da lekuaren arabera, bizitzean daukazun jarreraren arabera baizik. Hemen munduko pertsonarik zoriontsuena edo zorigaiztokoena izan zaitezke eta berdin Tonbukun, Javan edo Australian. Surfari dagokionez, gure kostaldea oso ona da eta atzerritarrek aintzat

“Nire paranoiak idazteaz bakarrik bizi gura nuke, baina ia ezinezkoa da”

hartzen dute. Ez dauka munduko beste lekuei ezer inbidiatzerik. Beno, Hawaiiiri bai!

—Hurrengo bidaiak nora?

—Angolara joan gura dut, baina oso gaxta da. Surfearn aritzeko kostalde ezin hobea dauka, baina arriskutsua da plangintza barik joaten garelako. Hala ere, zibilizazioa leku guztietara heldu da daborduko...

—Estualdiren bat biziko zenuen...

—Nonoiz, noski, zerbait gertatu ahal zaizu eta arazoak edukitu. Behin Indonesian, Kepa Acero surfariari sorbalda atera zitzaion eta, bat-batean, botata geundela konturatu ginen. Gorriak ikusi zituen eta azkenean leku zatar baino zatarragoan ipini zioten ondo. Baina, orokorrean ez da arazorik egoten.

—Orain aita zarela, zelan daroazu bidaiatzearena?

—Ez pentsa hainbeste bidaiatzen dudu-

nik! Atzerrian nagoenean ez dut etxean asko pentsatzen eta hemen nagoenean alderantziz egiten dut.

—Berba egin dezagun lokalismoari buruz.

—Surfaren munduan heldutasun falta ikaragarria dagoela erakusten du horrek. Jendeak borroka egiten du olatuengatik eta eskubide batzuk dituela uste du. Gorbeara zoazenean ez dizu baserritarrak esaten ia bere mendian zer egiten duzun! Ba uretan gertatu egiten da. Orain dela gutxi arazoak izan nituen Mundakan, argazkiak ezin nituela atera esan zidatelako. Zorionez, arazoa berba eginez konpondu genuen. Surfa nerabezaroan daudenen kirola da...

—Esan bezala, surfari, argazkilari eta idazlea. Zelan erabaki zenuen idaztea?

—Surfearn edo argazkigintzan hasi baino lehen heldu zitzaidan behar naturala izan zen.

—Literaturako Sari Nazionala orain gutxi eskuratu duen Ramiro Pinilla maisu izan zenuen.

—Nik eta Algortako beste askok. 1982an ezagutu nuen, idazketa tailerlean. Bertan,

bakoitzak egindakoa irakurri eta kritika oso gogorak egiten genituen. Niri oso erabilgarria izan zitzaidan.

—Zeren inguruan idazten duzu?

—Modu desberdinetan, baina niri buruz idazten dut.

—Argitaratu duzun azken lanari Nanga izenburua jarri diozu.

—Eleberri bat da, Indonesian bizi den bilbotar baten inguruko thrillerrea. Erretiratzeri joan da bertara, baina jarraitzen duen norbait dago. Orduan ihesean hasiko da eta, horretarako, hil egin, gezurra esan eta denetarik egingo du. Batzuetan, ordea, oso pertsona atsegina emango du. Oihanean giro goibela islatu gura izan dut. Pertsonaia ilunak gogoko ditut, agian apur bat sentsazionalista naiz.

—Orain zerbait idazten ari zara?

—Eleberri batez nago. Horrez gain, daborduko amaituta dagoen beste bat argitaratu gura dut apirilera: *Doce poemas de amor de Zicatela*. Oaxacako (Mexiko) hilketa batez zerikusirik daukan euskal surfari baten istorioa kontatzen du.

—Gabriel Aresti akzesita eskuratu zenuen. Garrantzitsuak dira sariak zuretzat?

—Gutxitan aurkeztu naiz, baina oso ondo dago sariak jasotzea...

—Gatxa al da liburu bat publikatzea?

—Niri asko kostatu zait. Aurretik kalera-tutakoak neuk editatu ditut eta ez nuen tirada handirik egin.

—Kolaboratzailea ere izan zara komunikabide ezberdinetan.

—Horri biziraupen edo hornibide aroa deritzot. Nire paranoiak idazteaz bizi ahal

izango banintz, ez nuke ezer gehiagorik egingo. Baina ia ezinezkoa da eta, beraz, surfaren inguruko erreportajeak, kronikak... idatzi behar ditut. Aktibo mantentzen laguntzeaz gain, diru apur bat irabazi eta surfa egiten dut. Estatuko aldizkari gehienetan jarduten dut eta nazioarteko batzuetan, azken horietan nahiko ondo ordaintzen dute-eta. Bestelako aldizkarietan ere argazkiak argitaratu izan ditut, UKn esaterako. Izan ere, surfaren mundua mugatuegi geratzen ari zait. Une honetan, adibidez, Bilboko argazkiak egiten nabil inguruko mendietatik. Zelako ikuspegi ederrak!

—Zer egin behar duzu orain? Zein da zure hurrengo erronka?

—Idazten nabilen eleberria amaitzeko denbora hartuko dut eta Kantauri itsasotik argazkiak ateratzen lasai ibiliko naiz. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



BILBO

Begirada garbia

Bere irudiek kontrakoa erakusten duten arren, argazkilari zaletua baino ez da Mikel Martin bilbotarra. Bizi dugun mundu zaratatsuan, sarritan kaotikoa ere badena, Mikelen begirada garbiak harrapatzen dituen irudi ederrak lasaitasuna, isiltasuna eta bake moduko zeozer transmititzeko gauza dira. Bere lan gehiago ikusteko www.flickr.com/photos/mikelm gunera jo dezakezue.

Ez zaizue damutuko.

Argazkiak: **Mikel Martin**



SOPELA



SOPELA



SOPELA



XXON



ABRA



EA



BILBO



BILBO



PALENTZA



SUANCES



BILBO



BILBO



BILBO

zineeskola

Oskar Fernandez

Noiz, zelan sortu zen 7. artea?

Gaur egun edonork daki, ondo baino hobeto jakin ere, zazpigarren artea zinema dela. Baina noiz eta nola bihurtu zen arte adierazpen baliabide hau? Hasieran, Lumière anaien bidez zinema zientzia-tramankulua baino ez zen izan; geroago aisialdirako entretenimendu-edo bihurtu zen. Asmakizun berri honek mende laurden baino gehiago, hogeita hamaika urte hain zuzen ere, itxaron behar izan zuen arte mailara heltzeko. 1926. urtean, zinema kritiko batek, Riccioto Canudok, *Irudien lantegia* liburua argitaratu zuen. Argitalpen horretan arteen sorburua azaldu zuen, baina baita zinemari buruzko teoria berri bat ere. Teoria hori berehala sendotu, zabaldu eta onartua izan zen. Canudo jaunaren iritziz, arteek bi sorburu baino ez zeuzkaten: alde batetik, gizaki primitiboaren bizilekua; bestaldekik, "etxe" horren inguruan gizonek eta emakumeek garatzen zituzten erritoak, sinismenak, ospakizunak eta abar. Hori aipatu ondoren Ricciotok arte guztien azpian – zutabeak edo erroak izango balira bezala – arkitektura eta musika kokaturik zeudela adierazi zuen. Garai hartan sei arte ezagutzen ziren, baina bere ustetan, arte horiek espazio eta denborako artetan sailkatzen ziren. Espazioan, arkitektura, eskultura eta pintura zeuden kokaturik eta arte plastikoak deitzen ziren. Musika, dantza eta poesia, berriz, denborarenak ziren. Artearen teoria honela garaturik zinemari ez zitzaion batere zaila izan zazpigarren artearen kategoriara heltzea. Arte berri honek berezitasun nabarmena zeukan: alde batetik espazioko artea zen irudien bidez irudikatzen baitzen; baina bestaldekik –nahitaez– denborarena ere bazen, zinema istorioek garatzeko denbora behar baitute. 4

Betizuen beste abentura bat

Betizu eta Xangaduko misterioa hiru dimentsiotako animaziozko filma estreinatu dute

Orain dela lau urte ikusi genituen lehenengoz Betizu, Betisuiss, Eme-U eta Arrati pantaila handian, *Betizu Izar Artean* film luzean. Orduan ere Baleukok ekoitzi zuen animaziozko lana eta Egoitz Rodriguez Oleak (Galdakao, 1978) zuzendu.

Betizu eta Xangaduko misterioa, aurreko lana legez, 3 dimentsiotan egindako animaziozko film luzea da (61 min). Lehenengo lanean Betizuek Buff Alua

«Dagoeneko Bilboko Multis eta Basauriko Bilbondo zinemetan dago ikusgai»

enperadorea garaitu eta galaxiari bakea eta harmonia itzuli bazioten, oraingoan, espazio-ontziak jasango duen matxura baten ondorioz basamortu itxurako Xangadu planetan lurreratu beharko dute eta bertan bakarrik ez daudela konturako dira. Planetaren jabe egin den basapizti maltzur batek, planetako altxorra aurkitu eta bereganatzeko asmoz, biztanle guztiak preso hartu ditu. Halaxe hasten da Betizuen abentura berria eta gure lagunek "galtza bete lan" izango dute biztanleei laguntzeko, altxorra aurkitzen ahalegintzeko eta espazio-ontzia konpontzeko.



Pelikularen kartela

Betizu eta Xangaduko misterioaren gidoia Egoitz Rodriguezek berak eta Xabi Zabaletak egin dute, eta Iker Alvarez izan da animazio zuzendaria. Musika oster, Asier Ercillak (Balea) sortu du, baina abestien letrak Xabier Amurizak osatu ditu eta Alex Sarduik ipini die ahotsa.

Amaitzeko, Bartonfilmsek banatuko du filma eta Bilboko Multis eta Basauriko Bilbondo zinemetan dago ikusgai. m

Ez galdu > "Manderlay"

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** azaroaren 17a, barikua • **Ordua:** 22:00 • **Cinema Paradiso**



Lars Von Trier zine zuzendaria European eta Mendebalde osoan oso ezaguna da, batez ere, 1995ean Dogma 95 manifestua ezagutzera eman zuelako. Beste hainbat zine zuzendarik egin duten moduan film laburrak zuzentzen hasi zen Von Trier. Danimarkako Zine-Eslolan 1983. urtean lizentziatu eta 1984an bere lehenengo film luzea sinatu zuen: *The Element of Crime*. Zuzendutako filmek ospe handia lortu dute eta haien artean aipagarriak dira: *Europa*, *Breaking the Waves*, *The Idiots*, *Dancer in the Dark* eta *Dogville*. Azken lan horrek, *Manderlay* eta *Washington* filmekin, Amerikari buruzko trilogia osatu du. *Washington* filma 2007. urtean helduko da pantailetara.

Zodiacs, disko berria kalean

Talde getxoztarrak izen bereko lana plazaratu du eta **Fitogaz egingo du kontzertu bira**



Zodiacs-eko taldekideak

Iragan urriaren 23an kaleratu zuen Zodiacs talde getxoztarrak (gaur egun taldekideak Madril aldean badabilta ere) izen bereko azken lana, *Zodiacs*. Ignacio Garbayok (ahotsa/gitarra), Miguel Guzmanek (gitarra/ baxua/ahotsa) eta Laszlo Anasagastik (bateria/ahotsa) osatutako hirukotearen disko berria Nigel Walkerrek ekoitzi du eta azaldu dutenez "ia-ia zuzenean grabatu" dute. Horrez gainera, disketekeok horrela aurkeztu dute Zodiacsen azkenengo lana: "Zuzeneko izelakaz poltsikoratuko dituzte zaletuak, *The Who*, *Real Kids*, *The Jam*, eta 60-70 hamarkadetako punk eta garage taldeen bertsioak eskaintzen

dituzte; indar handiko benetako rock gaztea da getxoztarrena". 1999-2000n sortu zen taldea eta Getxoko musika lehiaketa irabaztearen ondorioz plazaratu zuten Pinball Rock (2001) lehenengo lana, eta handik 3 urtera bigarrena: *Golpe de Calor*. Garbayok aitortu duenez, *New Wave* delakoaren talde ingeles eta amerikarren eragina dute (The Beat, Elvis Costello, Pistones...). Amaitzeko, disko berria dela-eta Australiako Jet taldeagaz 2 kontzertu eskaini dituzte, eta azarotik aurrera Fito & Fitipaldis taldeagaz kontzertu biran ibiliko dira getxoztarrak; hala, hurrengo data akorduan edukitzea izango da: abenduaren 22a, BECen. m

diskoak

Lurra eta maitasuna
Pantxoia eta Peio
Elkar



15. diskoa osatu dute Pantxoia Carrere eta Peio Ospitalek. Iparraldeko inspirazioan oinarritu dira lapurtarrak oraingoan. Izenburuan argi utzi dutenez, lurra eta maitasuna dira osatutako kantuen gai nagusiak eta disko gardena sortu dute tematika horren inguruan. Euren letra eta doinuak garbiak dira, emozioz beteak. Produzio artistikoaz, berriz, Iñaki Dieguez arduratu da.

Une nare eza
Une
Oihuka



Momentu trankilen eza esan gura du Unek bere lehenengo lanari ipini dion izenburuak. Aitor Uriarte taldeko abeslariaren ahotsak markatzen ditu osatutako abestien pautak. Une, melodiari dagokionez, pop estiloko taldea dela esan dezakegu, baina rock indartsuaren mugan jarduten duen popa da. Indartsua, metaleroa eta gitarra gogorduna aldi berean, sentimenduen adierazle da Une.

18
Moby
V2 Records



Azken diskoa kaleratu zuenetik hiru urte igaro dira daborduko. 18 da lan berriaren izena eta 18 dira Mobyk aurkeztutako abestiak. Badaude *Play* laneko doinuaren antza daukaten abestiak; izan ere, aurrekoan oso emaitza onak eman dion estiloari eutsi gura izan dio Richard Melville Hallek; entzun bestela, *In this world, Extreme ways...*

diskoa >

Atom Rhumba



Musika onaren zaleek berri ona daukate; izan ere, Atom Rhumba taldeak disko berria kaleratu du: *Amateur Universes*. Disko berri hau Oihuka disketeak argitaratu du eta berezi samarra da. Edizio mugatua izango da, LP bikoitza karpeta bikoitzaren barnean. Gainera, LP bikoitza CDa ez bezalakoa da, bai kanpotik zein barrutik, besteak beste, CDak ez dakarren kanta bat dakar eta. Azken disko honetan jende desberdinak hartu du parte: Jon Wahl, Hendrik Röever, Luis Camino, Jon eta Aritz Elizalde, Igor "Fino", etab.

diskoa >

Urgabe

Bi urteren etenaldiaren ostean, *Isilean* disko berria kaleratu dute Mungialdekoek, euren laugarren lana dena. Antza, etxeko barkadearan sortutako kantak direlako dauka izenburu hori. Aurrekoa baino rockeroagoa dela esan daiteke, powerpoparen eta rockaren arteko batuketatik eratorritako doinuak dauzkalako. Horrela, alde batetik gitarra zorrotzak topatuko ditugu; baina beste aldetik, melodiak eta tempo erdiko baladeran bat ere badaude. Azkenik, Aitor Gorosabel, Francis Diez eta Jon Montanchezen laguntza eduki dute Urgabeok, baita Belen Fernandez txelo jotzailearena ere.

Xabi Paya > itzultzailea

“Irakurle helduak gauza batzuk ikusiko ditu eta irakurle umeak beste batzuk, baina...”



Xabi Paya Azkorriko lurralde mugabakoan

Laster beteko dira 100 urte James M. Barriek *Peter Pan* ipuina argitaratu zuenetik, eta oraintsu kaleratu du Geraldin McCaughreanek *Sekula Betiko Lurraldean gertatutakoaren bigarren atal ofiziala (Great Ormond Street ume ospitalak eskatua)*. Bigarren atal hori, *Peter Pan eta jaka eskarlata Xabi Paya itzultzaileak ekarri du euskarara*. Hiru hilabetean itzuli du ingelesez eta erronka polita izan dela aitortu du algortarrak.

—Zeintzuk izan dira zailtasun handienak?
—*Peter Pan eta jaka eskarlata* da neuk euskaraz ipini diodan izenburua, eta hor igarten da zein den zailtasuna, hasieratik, izenburutik bertatik; ingelesez *Peter Pan in scarlet* da, euskaratzean eskarlataz litzateke itzulpen fidelena, baina kontuan hartuta ume askok irakurriko dutela, jakaren erraztasuna ematea erabaki nuen. Gero hitz joko asko agertzen dira, kantuak ere bai, errimatuak, neurtuak... Lehenengoaren itzulpena Julen Gabiriarena da eta nik bere erabaki gehienak

hartu ditut, euskararen batasuna hobesteko, eta berak egindako hautaketak onak iruditzen zaizkidalako. Bestetik, euskaldunak garen aldetik, obra honek daukan gauza garrantzitsuena da lehen aldiz euskarazkoa argitaratu dela jatorrizkoagaz batera. *Brooklyngo erokeriak* atera zen beste itzulpenakaz batera, ez jatorrizkoagaz batera. Gainera, irratian esan legez, oraingoan Peterrek eta Wendyk EGA daukate eta euskaraz dakite.
—Pertsonaia ezagunak zein berriak daude, eta istorio ilunagoa ei da bigarren hau.

—Ume galduak hazi egin dira, aldatuta agertzen dira. Bat-batean Sekula Betiko Lurraldea deika hasten zaie, zerbait ez doa ondo, eta bueltatzea erabakitzen dute. Baina horretarako zailtasun handiak izango dituzte, helduek ezin dute hegan egin! Eta Sekula Betiko Lurraldea erabat aldatuta aurkitzen dute! Pertsonaia berriak ere agertzen dira: sorginak, herensugea, zirkua... Oso ondo mantentzen du McCaughreanek Barrieren estiloa, izugarria da zelan lotzen dituen Sekula Betiko Lurraldearen fikzioa eta bene-

«Oraingoan Peterrek eta Wendyk EGA daukate, euskaraz dakite»

takoaren errealitatea, irakurle helduak gauza batzuk ikusiko, umeak beste batzuk; baina helduok ume garez eta umeak heldu...
—2008an *Peter Pan* ondare unibertsal bihurtuko da, askok bigarren atal honi dirunahi usaina hartu dio.

—Asko aztertu nuen hori. Barriek Great Ormond Street haur ospitalari eskubideak 1929an eman zizkion, beraz, 2008an galduko ditu. Barrieren nahia zen obra horren diru-sarrera guztiak ospitaleak umeentzat erabiltzea. Ospitalekoek Barrieren nahia bukatzeaz dagoela ikusi dutenean, bigarren parte nahi horregaz jarraitzeko aukera zela ikusi dute, irabazien erdia ospitalarentzat da, bestea idazlearentzat. Itsusia? Barrieren nahia betetzeko ahalegina izan daiteke, berak behin hasitako nahiari eusteko modua.

—Amaiera, itxita ala zabalik lotzen da?

—Oso polita da, bukaeran zure barru-barruraino iristen da, orrialdeak pasatu bitartean entzuten zenuen zarata, agian ez zen orrialdeena, Peter Pan leihotik begira zeneukala baikizik! Errealitatea eta fikzioa lotzen dira hor, James Barriek lehenengoan egin zuen legez. m

Koldo Zubimendi > mendigoizalea

“Noski, espero dut nire bizitzan, beste zortzimilako bat igotzea!”



Urriaren 1ean zapaldu zuen Cho Oyuko gailurra Zubimendik

Pasa den abuztuaren 28an abiatu ziren Koldo Zubimendi erandioztarra eta Iker Iriondo andoindarra Himalayarantza, Tibeteko eta Nepaleko mugan dagoen Cho Oyu (8.012 m) zeukaten helmuga. Ordutik hilabete eta gutxira, urriaren 1ean goizaldeko 1:00etan egin zuen gailurra bakar-bakarrik erandioztarrak.

Orain dela 10 urte inguru ausiki zuen mendizalearen arrak 24 urteko erandioztarra, eta Udalaiz, Anboto eta Gorbeiaiko gainak izan ziren lehenengoak. Adinez nagusi izateko urteak betetzerakoan Pirinioak jarri zituen oinpean, Añamendi, Hiru Erregeen Mahaia... “*Gero neguro joaten nintzen, hor harrapatu ninduen mendiak, izotzetan eta arroketan eskalatzeko hasi nintzen... eta hortik aurrera Andeak, Alpeak... eta Himalaya!*”. 2002an Boliviako Andeatatik bueltan zetozela jaio zen Himalayara joateko egitasmoa. Iriondo eta Zubimendi bakoitza bere aldetik hasi ziren mendia gainera informazioa sarean-eta bilatzen, “*hasieran ez genekien ezta zortzimilako bat egingo genuela ere, baina biok bide berbera proposatu genuen, Cho Oyuko “Freetibet” bidea; ez da bide klasikoa, baina politagoa dela uste dugu, Himalayan klasikotik jende*

asko dabilelako eta hori geuk ere antzeman dugu”, azaldu du erandioztarrak. Atxazpe mendiko kideak igoeraren gainera zera dio: “*Hasieran nahiko indarsu ibili ginen, astiro joanez aklimatatzeko-eta; gero kriston egunaldi txarra izan genuen eta gainontzeko espedizioak Katmandura bueltatzen hasi baziren ere, guk itxarotea erabaki genuen, egoteko baimena amaitzen zitzagunera arte; zorte eduki genuen eta tontorra egin!*”. Pozik, baina zenbait arrazoi medio, eskuineko oineko behatzak izoztuta itzuli da Zubimendi, baina 6 hile barru guztiz osatuta egotea espero du. Ho-

«Lagun batzuek grabatutako irudietan ikusi genuen militar txinatarrek 8 tibetar tiroz akatu zituztela»

rrez gain, istorio salagarria ekarri dute go-goan: “*Guk ez genuen zuzenean ikusi, errumaniar mendizale lagun batzuek bideoan grabaturiko irudietan baino; militar txinatarrek 8 tibetar tiroz eta odol hotzean zelan akatu zituzten ikusi genuen! Halere egoera nahiko lasai dago, maoistek Katmandun ez dute emagin handirik, baina bailaretan-eta pintadak eta irudiak ikusten ziren*”. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris S.L.

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBIT-
ZUAN

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Sean Aucutt > Oinkari dantza taldeko kidea

“Estatu Batuetan jende askok bere sustraiak gorde nahi ditu, euskaldunek ere bai”



Sean Aucutt, dantzari euskal amerikanua

Iraila aldean Boiseko (Idaho) Oinkari dantza taldea ikusi genuen Sopelan. Etxera bueltatzeko bezperan, Sean Aucutt taldeko kidea gugaz egon zen. Aucuttek Uranga edukiko luke bigarren abizena, AEBetan bigarren abizenik balego. Amaren gurasoak bizkaitarrak ziren, baina Sean Aucuttek euskara batua darabil, gipuzkera kutsu bategaz. Lazkaon ikasi zuen euskaraz, barnetegi batean, 22 urte zituela. Bai txukun ikasi ere!

—Zelako hiria da Boise?

—250.000 biztanle ditu, eta 20.000 inguru euskaldunak edo euskal jatorrikoak dira. Denak ez dira Euskal Etxean ibiltzen, noski.

—Eta hango euskaldun gehienak egon izan dira Euskal Herrian?

—Erdia baino gehiago, esango nuke. Euskal Etxean ibiltzen direnetatik, ia denak.

—Inori bururatu zaio hemen geratzea?

—Bizitzeko? Bai, niri etorri izan zait burura, baina gero lana topatzeko eta abar...

—Bizimodu desberdina da hemengo...

—Beharbada hobea, badakizue nola bizi. Bizitzeko egiten duzue lan, eta guk alderantziz: lanerako bizi. Jende asko dabil horrela. Hemen dirua behar da, bai, baina nahi duzuen egiteko: familiarekin egon, lagunekin afaldu, kalera atera...

—Han ez da jendea kalean zehar ibiltzen?

—Oinkarikook zortea dugu, beste amerikarren desberdinak garelako. Amerikarrak gara baina badaukagu euskal jatorria, eta badugu ohitura Euskal Etxera joateko, eta beti lagun bat aurkituko dugu. Bestela, Boisean ez

dago ohiturarik...

—Zenbat zarete taldean?

—Ia 60. Hona 35 inguru etorri gara.

—Eta nongo dantzak egiten dituzue?

—Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Lesakakoak, Lapurdikoak... Bizkaikoak gehienak, gure sustraiak horkoak dira eta. Denetik dago Boisean, baina Bizkaitik kanpoko gutxi. AEBetan Nafarroako eta Iparraldeko jende asko dago, baina horiek Kalifornian egoten dira gehiago, eta Boisean bizkaitarrak edo bizkaitar jatorrikoak.

«Hemengo bizimodua, beharbada, hangoa baino hobea da badakizue nola bizi»

—Oinkarin umeak ere badituzue...

—Horiek beste talde batean daude, Boiseko Gazteak. 200 inguru ari dira dantzak ikasten, hiru eta hamahiru urte bitartean.

—Zenbatgarren belaunaldikoak dira horiek? Dagoeneko ez da-eta euskaldunik joaten hemendik hara...

—Hirugarren eta laugarren belaunaldikoak dira, bosgarrenekoak ere bai.

—Eutsi egiten zaie euskal sustrai...

—Bai, nik uste nuena baino gehiago. 200 ume, pentsa!

—Gatxa da? Izan ere, hemendik joandako gurasoek berba asko egingo diete seme-alabei Euskal Herriaz, baina belaunaldiak igaro ahala ahulduz joango da lotura...

—Uste dut amerikarrek sustraiak galduta dauzkatela oro har. Ez denak, baina Amerikan... barkatu, Estatu Batuetan, nahasketa dago, eta jendeak sustraiak gorde nahi ditu. Aurkitu nahi dituzte, eta behin aurkituta, ondo heldu. “Ni irlandarra naiz”, “ni italiarra”... Eta euskaldunek, talde txikiagoa izan arren, berdin. Amerikar askok jakin nahi dute nondik datozen, eta ez dakite. m

Esakere > “Narruko galantak hartu”

Irudia: Gorka Vazquez



Zahartzarora ondo helduteko, ardao ta okela gitxi, diño batek; jan ta edan ta gero kontuk, diño bestek. Daunen bonbon! diño txitarrek, ta eztaunen egon! diñotso iñurrik. Carpe diem ala geroko kontuten pentsa? Ezin yakin. Argi daun gauza bakarra da halako dudakaz aspaldirik gabiltzezela, ze, filosofiatxuk ugeri dekuz horren ganera. Irudiko gizontxuk ederrak entzungo ta hartuko dauz, bai, baia orain arteko traguk, kantuk eta alaitasunek ezin iñok kendu.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerraren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gureberbakere⁸⁵

Testua: Xabi Bilbao

Esakera zahar batzuk: yan, edan, lo (I)

Goiko irudiko gizontxuk berba ederrak entzungo dauz laster parranda apur bet egin dauleko. Berantzako konsolaziñorik ez lestike ixengo hau entzute, baia orain arkeologo batzuri esker badakigu janari eta edari ugari gurari ez dala gaur eguneko euskaldunen gauze. Danok dakizuen lez, Arabako Iruña-Veleiako indusketatan III. mendean idatzi ziren euskerazko berba batzuk topa direz, euskeraz idatzi direzen berba zaharrenak. Berba gitxi batzuk direz, eta auren arten, zelan ez, honek hirurek: yan, edan, lo. Bakotzak egin daizela konklusioak.

Guk hemen bere zeozertxu esango dogu hiru gai horren ganen, aurkikuntze horrerri omenaldi egiteko. Hemen doaz ba, gure esate eta esakera batzuk yan, edan eta loan ganera.

Lehelengo, yan ta edan. G. Garatek, beran atsoitz bilduman, yakinduriko esate zahar batzuk ekarten doskuz:

- Ardoa ona, neurriz edan ezkerro.
- Edan bako mozkorra, txarrena.
- Edan eta gero egiak.
- Edan ta jokua, itxea (etxea) galdua.

R.M. Azkuek, *Euskalerraren Yakintza*-n, eta J. Mokoroak beran lokuziñon bilduman, jan eta edan kontun ganeke gorabeherak zelan esan erakusten doskue, edateko modu esate baterako:

- Zurruta baten edan edo arnas baten edan (Mokoroa).
- Zanga-zanga edan ta edan (tragu handiten) (Mokoroa).
- Edan daigun zarra-zarra biotza poztu artean! (tragu handiten) (Azkue).
- Jan-edan bidietan leponaño sarturik (Mok.)
- Jan-edan gaiztoetan dabil (lar eta ganora

barik yaten, edaten eta abar.) (Mok.)

- Jan-edan larretana emonik (Mok.)
- Jan-edan gogorrean (Mok.)
- Yan idiak legez, edan ziriak ('junco') legez (Azkue).

Edo batek zelako edakera dekon esateko:

- Edan gaiztoa dauka; edan txarragoko mozkortirik ezto ikusi (Mok.)

Edo edaten dan kantidade:

- Txakoliñe edan-ala geunken, ta jakia naia-naian (zenbet gure) (Mok.)
- Titarakada bat ardao zuri edan-ezkerro ortxe dago ori txolindua (Mok.)

Ondiño era honetako esakera asko doguz ikusteko, ze, pentsaizue III. mendetik hona zenbet asti auk dogun, baia gaurkoz hemen amaituko dogu, konklusio pipa bategaz:

- Ondo bizi zara? Bai! Jan, edan, pipa, lo! (G. Garatek batute).

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta



Torre 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Ahabi

tarta

Tarta gozo bat proposatzen dizuet oraingoan: ababi (erdaraz, *anandano*) tarta. Hiru partetan egingo dugu: oinarria, krema pasteleroa eta gaineko ababiak. Oinarria egiteko (beherago zehazten dira kopuruak) irina, gurina, almendra eta arrautza eskuz ondo nahastu guztia ore homogeneoa lortu arte. Hozkailuan 45 minutuz gorde eta gero hondo-kengarridun moldeaz bete. 180 gradutan 20 minutu eduki. Badaukagu tartaren oinarria. Bestetik, krema pasteleroa egingo dugu. Ipini esnea sutan irakin arte, kanela adar eta limoi azal batekin. Ontzi batean azukrea, irina eta arrautzak ondo nahastu papilla moduko bat lortu arte. Ondoren, esnea irakiten dagoenean, papilla hau gehituko diogu eta hiru minutuz sutan eduki guztia eten barik ondo mugituz. Krema hoztu, ondoren oinarria krema honekin beteko dugu. Azkenik, ababiak azukrearekin nahastu eta sutan eduki apur bat mermelada antzeko bat lortu arte. Honekin tarta estali. ^m

osagaiak

Oinarria egiteko: 400 gr. irin • 200 gr. gurin urtuta
50 gr. almendra ehotu • arrautz bat / Krema pasteleroa egiteko: litro 1 esne
3 arrautz • 200 gr. azukre • 80 gr. irin / 300 gr. ababi.



itsaso arana / jolastokikoa

Toroko

beltza

Zamorako hego ekialdean, Duero, Guarena eta Talanda ibaien erriberan (hau da, Toro jatorri izendapenak hartzen dituen lurretan) lantzen da *toro beltza*. Demostratu berri da *tempranillo* gurearen ondorengoa dela, baina hango lurretara eta klima baldintza latzetara egokitu eta gero ezaugarri propioak bereganatu ditu. Bere graduazio alkoholiko handia (14 gradutara hel daiteke) eta taninoek ematen dioten astringentzia altua ditu ezaugarriak azpimarragarriak. Ardao indartsuak, sendoak eta ondo egituratuak ematen ditu, Ribera del Duerokoekin antza badaukatenak. Garnatxarekin nahasten denean ardao gorri freskoak, leunak eta aldi berean oso aromadumak ematen ditu. Orainsu *cabernet sauvignon* dotorearekin nahasten hasi dira. ^m



[norajoan]

Elaya enoteka

Ardoaren kultura Algortan



Nagore Lekanda eta Asier Elordui

Irailaren 29an ireki zuten Asier Elorduik, Agustin Alfayak eta Nagore Lekandak ardoaren tenplu hau. Agustin Bastidakoa da eta ondo ezagutzen du ardoaren mundua, horregatik ez zaie zaila egin kultura hori Uribe Kostara hurbiltzea. Urtebete baino ez dute behar izan proiektua errealitate bihurtzeko: *“Asier eta Agustin oso ekimentsuak dira. Gainera Agustinek arlandegitan lan egiten duen familia dauka eta horrek asko lagundu digu”*. Mota eta jatorri ezberdineko ardoaz aparte, delikatesen eskaintza zabaldu ere aurki dezakegu han: gaztak, pateak, frantses-porruak... Honez guztiaz Getxon gozatzeko aukera aparta da Elaya enoteka, *“ez dago Errioxana joan beharrik”*.

Txoko ederra sortu dute, tradizioa eta modemitatea ondo uztartzen dituen, baina beti ardo ardatz daukana (koadroak, apaingarriak...). Lokala oso handia ez izan arren, pri-

meran aprobetxatu dute espazioa, tabernaz gain denda eta eskolarako lekua ere ateratu dute. Azken honetan indar handia egin nahi dute. Ardo-dastatzeko ikastaroak eta ardandegietara irteerak programatu dituzte momentuz, baina eskaintza hau zabaltzeko asmoa daukate la aurreratu digute. Dendari dagokionez, han aurki dezakegun guztia bezeroaren esku jartzeaz aparte, enpresentzako zein banakoentzako gabon otzarak ere prestatzen dituzte.

“Ardoa gustuko duen jendearekin zuzendua dago, usain eta zaporeen kulturarekin disfrutatzeko duenari. Ez da poteo soil bat, zerbait gehiago da”. Karta astero aldatzeko asmoa ere agertu zigun Nagorek. Honetarako “CAVA” sistema berriarekin ekarri dute, *“sistema honekin botilak irekita gorde ditzakegu, propietaterik galduta gabe”*.

Jata, 7 - GETXO / Tel.: 94 491 53 97

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gueuz dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Hurrengo astebururako planak egiten hasi zara? Oraindik ez? Kanpinean joan zaitzake, museoak bisitatu, zuretzat ezagunak ez diren txokoak deskubritu... Hamaika aukera daude! Euskal Herria oso txikia da, baina gauza asko eskaintzen ditu.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Deituko zizula esan zizun, baina ezin zaitzake zure bizitza osoa horren pentsura egon. Ez du ematen pertsona horrek interesa erakusten duenik, beraz, zertarako denbora galdu? Gauza interesgarriagoak dituzu egiteko...

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Barkamena eskatzea batzuetan ez da nahikoa izaten. Etorbizunean erakutsi behar duzu zure jarrera zein den eta zure akatsa ordaindu. Egin duzun mina oso handia izan al da? Kostako zaizu orduan...

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Sukaldean aritzen ez dakizula uste dute batzuek... Egia al da? Horrela bada, ikastaro bat egin beharko duzu, urte bi daramatzazu-eta zure kabuz bizi izan! Zer jaten duzu? Eguneroko txinatarrean afaltzea ez da sana...

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Erabaki gatxa da oraingoan hartu behar duzuna. Lan hau edo bestea? Bataren soldata hobea da, baina bestearen ordutegia oso ona da gero... Burmuinari hainbeste buelta eman ondoren zorabiatuta amaituko duzu.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hainbeste urtean kirolak egin gabe eta orain, bat-batean, mendi guztiak igo, erreka guztiak zeharkatu eta lasterketa guztiak korritu gura dituzu. Zoratu egin zara ala? Gorputza zaintzea ona da baina...

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Dantzatzen ze trebea zaren erakusteko aukera izango duzu zapatuan. Dotore jantzi eta irten zaitzez pistara! Saturday Night Feverko protagonista ematen duzu. Bikotekidea behar al duzu? Jende asko prest dago...

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Zorionak! Lana lortu duzu azkenean! Orain zure ametsak bete ahal izango dituzu. Afrikara bidaiatzea dela? Aurrera! Aukera hauek ez dira birritan ematen, ez utzi ihes egiten. Denbora izango duzu itota ibiltzeko!

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Galduta sentitzen zara eta ez dakizu zure bizitzagaz zer egin. Gaztea zara oraindik, nagusien munduan noraezean dabilen gaztea. Gainera, inork ezin dizu bidea zein den erakutsi. Ez da zilegia, baina horrela da...

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Gauan ez duzu lorik egiten, kaleko zarata izugarria da-eta. Goizeko 4:00etan itzartu eta armairuan sartzeko gogoa pizten zaizu. Mendi puntara oporretan joatea aukera ona da; han, behintzat, mosoloen uluak bakarrik entzungo zenituzke!

IRATZEA

t




(Abuztuak 18 irailak 16)
Orain behar gogor eginez gero, emaitzak ikusiko dituzu lasrer. Hasierak ez dira errazak izaten, baina horrela dabilza hasiberri guztiak. Ikasi ahal duzun beste eta daukazun guztia eman. Nagusiek kontuan hartuko dute!

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zure herria faltan botatzen duzu kanpoan zaudenean. Bolada luzeak ematen dituzu atzerrian eta herriminak jota zaude. Ez larritu, bere jaioterrira itzuli ezin den jende pilo dago-eta; ikusi bestela, sahararuiak, palestinarrik...



mungia OKINdegia



*Algortan badaukagu
artisansuen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Teilagileak. 2. Putzua. Ate, hitz elkarketan. 3. (Errep., haur hizk.) Jotzearen onomatopeia. Mukitsu. 4. Ipar., bigundu. Ahuntzaren ar. 5. Hego Afrikako estatua. Kontsonantea. 6. Nazioarteko arau kodea. Pl., intsektu mota. 7. Atzizkia. Ipar., apustu egin. 8. Pl., bileran esan dena jasotzen duen agiria. Kontsonantea. Uribe Kosta. 9. Kontsonantea. Aluminioren ikurra. Jan gabe egotea. 10. Goiatz eta Azpeitia arteko mendatea. Bizkaiko ibaia.

Goitik behera

1. Ipar Euskal Herrian, balakatu, losintxatu. 2. Elepideak, amenomenak. Kontsonantea. 3. Ur gazizko hedadura zabal. Jatorria adierazten duen atzizki. 4. Berrogeita hamaika. Har ezak. Pilota tesna. 5. Pluralean, ale neurria, txila ere deitua. Potasioaren ikurra. 6. Egunaren parte ilun. Hurritzaren fruitu. Pare bat. 7. Iodoaren ikurra. Buztin zuri errefraktorioa. 8. Toka, nau. Kasik. Euskal atzizkia. 9. Adimen urrikoak. 10. Eronkarierez, hau. Txori mota.

Soluzioak

V	K	O	I	K	V	H	U
U	V	R	A	B	L	V	T
K	U	N	K	A	T	K	V
U	T	A	R	P	A	K	V
K	V	I	L	E	O	S	I
R	O	H	O	S	E	L	E
H	E	K	E	U	M	A	U
U	Z	I	K	M	S	V	T
V	A	T	A	L	V	S	I
A	L	I	G	I	N	A	K



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Portugaletekoa
- Itsasoa du ogibide
- Munduari bira ematera abiatu da

> Aurrekoaren erantzuna: Jose Mari Bakero
> Irabazlea: **Arrate Fdez. Mesa**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



Bittor Egurrola

Astrabuduko Atxazpe mendi taldea, 1956

Atxazpe mendi taldea Astrabudua auzoko San Lorentzo jaietan 1956ko abuztuaren 8an sortu zen, hau da, orain dela 50 urte. Hamabi lagunek sortu zuten taldea, guztiak gizinezkoak; neskak zertxobait beranduago bildu ziren taldera, baina ez askoz beranduago. Izan ere, goiko argazkia 1956koa da, taldea sortu zen urte berekoa, eta bertan andrazkoak ere agertzen dira. Taldearen izena dela eta, antza, lagun sortzaileak batu eta bakoitzak izen bat idatzi zuen papertxo batean; bozketaren bidez Jose Luis Uriagerekak (argazkian ere azaltzen da) asmatutakoa aukeratu zuten: Atxaxpe, 1974tik aurrera Atxazpe. Geuk geure aldetik taldeari orain arte bezala gutxienez beste 50 urte segi dezala opa diogu. Zorionak! m

Goitik hasita ezkerretik eskuinera:

1. **lerroa:** Sara Marrodan, Migel Aresti, Jose Luis Uriagereka, J. Ruiz Mezo.
2. **lerroa:** Pedro Elozegi, Candido Ballesteros, Barrondo.
3. **lerroa:** Felix Linares, Juan Mari Agirre, Josetxu Zubillaga, Maribi Urkijo.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

MIREIA GABILONDO > *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmeko zuzendari eta aktorea

“Ez daukat bizio gehiegirik eta guztiak aitor daitezke”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ez dakit esaten nolakoa naizen.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Woody Allenen edozeinetan, istorioak zelan kontatzen dituen asko gustatzen zait eta .

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Asko daude! Pertsona anonimoen istorioak gustatzen zaizkit. Hainbeste artean bat bakarra esatea...

Ohitura txarren bat al daukazu?

Pazientzia galtzea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Ez daukat gehiegirik eta guztiak aitor daitezke.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Asko. Indiarra bueltatuko nintzateke, hango jendearen begirada eta bizimodua hunkigarriak iruditzen zaizkit.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Agian ardo dastatzailea izango nintzateke.

Zein da zure ametsetako bat?

Egunean-egunean gertatzen zaizkizun gauza onak amestea.

Euskal Herriko zure leku kuttuna?

Edozein mendi tontor. Ez naiz askotan mendira joaten, baina egiten dudanean oso ondo pasatzen dut.

Zein da ikusi duzun azken filma?

Garfield 2, oso dibertigarria. Umea daukat orain eta horiek ikustea tokatzen zait.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

El país donde nadie muere, Ornella Vorpsirena. m



Getxon akademiak **ERE** euskaraz

LABURREAN— Mireia Gabilondo institutuan hasi zen antzerkian eta, hura amaitu ostean, aktore profesionala izateko ikasketak burutu zituen. Bere aurpegia ETB 1eko telesailetan egin da ezagun: *Martin*, *Ertzainak*, *Jaun eta Jabe...* Horrez gain, gidoigintzan eta zuzendaritzan behar egiten du, bai antzerkigintzan zein zinemagintzan. Besteak beste, *El florido pensil*; 1937, *gogoaren bidezidorretatik* eta *Otehitzari biraka* ikuskizun entzutetsuak gidatu ditu. Proiektu askotan Fernando Bernuesegaz lankidetzan ibili da Mireia. Bikotearen azken proiektua Donostiako Zinemaldian aurkeztu berri duten *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* film luzea da, Joxean Sagastizabal idazleak idatzitako eleberrirakastuaren gorabeherak biltzen dituena.

IKASGEHI

Eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko hitzarmena